

“EGIN ETA EKIN”

IRAKASLEAREN ESKULIBURUA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia

2008
berrikuntza urtea
euskadi
año de la innovación

AURKIBIDEA

1. Etapaz etapako proiektuaren sarrera: Helburuak, metodologia eta programaren faseak ..	5
2. Pertsona ekintzailearen esanahia ..	7
2.1. Oinarrizko kontzeptuak ..	7
2.2. Pertsona ekintzailearen profila ..	9
2.2.1. Gaitasunak ..	9
2.2.2. Gaitasunak landu ..	11
1. Sormena ..	12
2. Taldeko lana ..	17
3. Rolak eta lidergoa ..	22
4. Komunikazioa ..	28
5. Erabakiak hartzea ..	35
6. Nork bere buruarengan konfiantza ..	41
7. Arazoei konponbidea ematea ..	45
8. Frustrazioarekiko tolerantzia ..	52
2.2.3. Norberaren gaitasun-profila ..	54
3. Enpresa bat sortzeko prozesua ..	56
3.1. Ideia ..	57
3.1.1. Ideia, enpresa-proiektuaren oinarri ..	57
3.1.2. Ideiak sortzeko metodoak ..	57
3.2. Marketin-plana ..	59
3.2.1. Negozioaren nondik norakoak zehaztu ..	59
3.2.2. Prezioa ..	62
3.2.3. Banaketa ..	63
3.2.4. Publizitatea ..	64
3.3. Antolaketa ..	67
3.3.1. Organigrama ..	67
3.3.2. Lan-kontratuak ..	68
3.3.3. Forma juridikoa ..	70
3.4. Finantza-plana ..	74
3.4.1. Hasierako inbertsio- eta finantziario-plana ..	74
3.4.2. Emaitzen kontua ..	76
3.4.3. Diruzaintza-plana ..	77
3.4.4. Balantzea ..	78
3.5. Enpresa-proiektua idatziz aurkeztu ..	80
ERANSKINA ..	82
Lan-merkatuaren egitura ..	83
— Egungo lan-merkatua ..	83
— Curriculum vitae-a ..	86
ERREFERENTZIAK ..	89
WEB ORRI INTERESGARRIAK ..	90

ETAPAZ ETAPAKO PROIEKTUAREN SARRERA: HELBURUAK, METODOLOGIA ETA PROGRAMAREN FASEAK

Europako Batasuneko hainbat herrialdeetako hezkuntza-sistemek garrantzia eman diote ikasleek gizarte- eta lan-errealitatea hurbiletik ezagutzeari, bai eta ikasleak nork bere etorkizunari buruz gehiago arduratu behar izateari ere. Eusko Jaurlaritzak 2007-2010 epealdirako ezarritako hezkuntza-berrikuntzaren ildo nagusietan ere adierazten da ikasleek behar adina gaitasun barneratu behar dituztela, pertsona, herritar eta profesional gisa garatu ahal izateko.

Esku artean duzun proiektua, hortaz, ikasleek balioetan oinarritutako gaitasun giltzarriak zeharka barnera ditzaten bideratuta dago; egun, gaitasun horiek eguneroko bizimoduan erabili behar izaten dituzte eta, halaber, lan-arloan eskatzen direnak ere badira, besteren konturako langile izan zein nork bere negozioa sortzeko izan.

Gure ustez, garrantzitsua da bizi diren ingurunea nolakoa den jakitea ikasleek, eta etorkizunean —ez epe oso luzera— lan bila aritu behar izango duten ingurunea nolakoa den jakitea ere bai. Beharrezko informazioa eskura izatea eta hura aztertzea da helburua eta, hori oinarri hartuta, norberaren profilaria ondoen egokitzen zaiona aukeratu.

Programaren edukiak DBH eta Batxilergoko ikasleen curriculum arruntean integratzea da asmoa, eta gaitasun giltzarriak garatzea: frustrazioarekiko tolerantzia, erabakiak hartu eta arazoei aurre egin, talde-lana, lidergoa, sormena, komunikazioa, etab.

Hona hemen helburua: batetik, jarrera eta gaitasun ekintzaileetan heziketa zabala eskaintzea eta, bestetik, enpresak sortzeko prozesuari buruzko oinarrizko kontzeptuak ulertzea ikasleek.

Helburu hori lortze aldera, etapa ebolutiboen eta/edo irakaskuntza-etapen arabera antolatu dira jarduerak; gure ustez, DBH 1. mailako ikasle baten eta Batxilergoko ikasle baten artean aldeak badira.

DBHko lehen zikloko ikasleei dagokienez, asmakizun-tailerra garatzea, produktu eta/edo zerbitzu bat asmatzea eskatzen zaie, eta ziklo osoa dute horretarako. DBHko 2. zikloko eta batxilergoko ikasleei, berriz, negozio-plan egiteko.

Helburuak:

- Ikasleek jarrera ekintzailea izan dezaten lortzea, haiengan sormenezko pentsaera sustatuta.
- Erabakiak hartzeko, zein ardurak beren gain hartzeko edo beste norbaiten esku uzteko hezteko ikasleak.
- Norberaren autonomia, nork bere buruarengan konfiantza izatea eta helduak izan daitezen sustatzea, norberaren mugak kontuan hartzen direla.
- Enpresak sortzeko eman beharreko urratsei buruzko informazioa ematea.
- Zonaldeko ekonomia- eta enpresa-ingurunearen berri izatea eta aukerak hautematen jakitea.
- Balioen eta jarreraren inguruan kultura-aldaketa bultzatzea, espiritu kritikoa erakutsita eta, halaber, ekimena sustatzea haiengan.



Metodologia:

“Pentsamendu kritikoaren irakaskuntza-gida” oinarri hartuta egingo dugu lan; hartara, ikasleak, gerora benetakoak izan daitezkeen fikziozko egoeretan, gertaerak aztertzen eta ondorioak ateratzen ikas dezan, berak bakarrik eta halako egoeretan bere buruaz seguru dagoela. Irakasleak, berriz, ikaslea motibatu beharko du eta aholkuak eman beharko dizkio prozesuak iraun bitartean, haien lana errazte aldera.

Eskuliburua honela antolatu dugu: lehendabizi zati teorikoa azaldu dugu eta, ondoren, teoria praktikan jartzeko eta barneratzen laguntzeko ariketak edo jarduerak proposatu ditugu.

Programaren faseak:

- Irakasleentzako prestakuntza eta aholkuak programa osoan.
- Norberaren gaitasunak garatzeko tailerrak.
- Oinarrizko enpresa-printzipioak ikasteko tailerrak.
- Enpresetara joan (bisita 1 zentro bakoitzeko).
- Hitzaldi-elkarrizketak enpresa-alorreko pertsonekin (hitzaldi 1 zentro bakoitzeko).
- Proiektua: ikasitakoa enpresa-alorrean praktikan jartzea.
- Lehiaketa: parte-hartzea saritzea, ahalegina balioestea, gerora begira motibatzea.

Material didaktikoa:

- Irakaslearen eskuliburua
- Ikaslearen eskuliburua
- Gurasoentzako informazioa

2 PERTSONA EKINTZAILEAREN ESANAHIA

2.1. OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Hona hemen Eusko Jaurlaritzak hezkuntza-berrikuntzaren ildo nagusietan oinarrizko gaitasun kontzeptuaz ezarritakoa: “egoera jakin bati aurre egiteko jakintzen, jarreraren eta trebetasunen konbinazioa. Pertsona gisa egiteko, gizarteratzeko, hiritar aktibo izateko, lanerako eta bizitza osoan ikasten jarraitzeko dira beharrezkoak “oinarrizko gaitasunak”: izaten ikasteko, gauza berriak jakiten ikasteko, egiten ikasteko, elkarrekin bizitzen ikasteko eta ekintzaile izaten ikasteko”.

Hala adierazten da Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak emandako 175/2007 dekretuaren xedapen orokorretan:

“...gaur egungo gizarteak jakintzak hainbat testuingurutan eta etengabe aldatzen diren egoeretan aplikatzeko gai diren pertsonak behar ditu, bai eta aldaketei sormenaren bidez erantzuteko gai direnak eta berrikuntzarako prest daudenak ere. Ildo horretatik, oinarrizko gaitasunak landuta, ikasitakoa aurrez dakitenari gehitzeko aukera izango dute ikasleek; hala, elkarrekin lotuko dituzte ikasitako edukiak eta haiek eraginkortasunez erabiltzeko aukera izango dute, hainbat egoera eta testuingurutan aplikatzeko...”.

Hau da oinarrizko gaitasunetako bat: **“Egiten eta ekiten ikastea”, erabakiak eta ardurak hartzeko ekimena izatea, esfortzua eta zailtasunak gainditzeko ahalegina balioestea, eta ekintzailea izatea, bizitzaren alor guztietan.**

Bestalde, Europako Batasuneko Batzordearen “Enpresa-espirtua Europan” izeneko Liburu Berdeak honako hau dio: “Espiritu ekintzailea, batik bat, jarrera da, aukera bat hauteman eta hura lortze aldera norbanakoak —bere gisara edo erakunderen baten barruan— borroka egiteko duen motibazioa eta gaitasuna adierazten duena eta, hala, balio berri bat ekoizteko edo arrakasta ekonomikoa lortzeko...”. Pertsonen jarrerarekin du zerikusia eta, bestalde, hautatzean eta ekitean, zerbait sortzean edo jardueraren bat abian jartzean —ekonomia, gizarte, arte edo ingurumen, ikerketa edo hezkuntzaren alorrean— erabakitzeak eskuratutako jakinduriarekin ere bai.

Ekintzaile izateko hezi daiteke, eta enpresa berri batean, dagoeneko merkatuan diharduen enpresa batean edo proiektu bat osatzean, erabakiak hartzeko prozesuetan pertsona bakoitzak duen parte hartzeko moduan islatzen da.

Begi bistakoa da, denboraren joanean gure ingurunea etengabe aldatu dela eta horrek, halaber, komunikatzeko moduak, ingurunearekin elkarrekintzan aritzeko moduak eta ekoizteko moduak aldatzea ekarri du. Beraz, nahitaezkoa da pertsonak gai izatea —ahalik eta gazteen— aldaketa horietara egokitzeko eta bizitzan izaten diren zenbait egoerari behar bezala aurre egiteko.

Horrenbestez, nahiz eta nortasun-eredu bakarra ez dagoen, pertsona ekintzailearen profilak badi-tu zenbait elementu komun, eta horiek kontuan izan behar dira gero garatu ahal izateko. Gero eta garbiago daukagu kultura eta espirtu ekintzailea bultzatu behar dela, eta sormena eta berrikuntza sustatu behar dela ere bai. Jarrera ekintzailea izateko, eskolan txikitatik landu daiteke, eta ez bakarrik norberaren kontura lan egitea aukera dezaketenei bideratuta, baizik eta jarrera orokor gisa, eguneroko bizitzarako oso baliagarria den jarrera gisa.

Haurrek zein nerabeek orainaldia bizi dute, eta haiekin beren etorkizun profesionalaz arituz gero, eguneroko errealitate hurbiletik oso urrun dagoen zerbait bezala ikusten dute. Beraz, hona hemen

erronka: gaitasun horiek dagoeneko erabiltzen dituztela ikusarazi behar diegu, etengabe hartzen baitituzte erabakiak, etengabe aurre egin arazoei, etengabe komunikatzen, etab. Aisialdia eta berdinen arteko taldea espazio aproposa, ezin hobea izan daiteke sormena, autonomia, elkartasuna, lankidetzeta... lantzeko.

Hori lortzeko, gaitasunak eta jarrerak lantzea ezinbestekoa da; hona hemen modua:

- Nork bere gogoetak egin ditzan sustatu ikasleen artean, beren burua hobeto ezagutzeko, eta pertsona gisa norberaren alderdi indartsuak eta ahulak identifikatzeko.
- Uneko gizartearen errealitatea ulertzen lagundu; harekin elkarrekintzan aritzen lagundu; hainbat testuingurutan komunikatzen ikasten lagundu, norberaren ideiak adierazten eta gainerakoena entzuten dituztela; norberaren irizpidearen arabera hautatzeko gai izaten lagundu.
- Inguruko errealitatearen aurrean jarrera optimista eta gogotsua garatzen lagundu eta, horretarako, ikasteko jakin-mina sorrarazi, jarreretan sormena izan dezaten irakatsi, ardurak beren gain hartzen eta/edo beste norbaiten esku uzten irakatsi, erabakiak hartzeko segurtasuna izaten irakatsi eta arazoei aurre egiteko estrategiak eskaini.
- Nortasunaren oinarritzko alderdiak landu; esate baterako, enpatia eta asertibitatea; pertsona parte-hartzailea izateko oinarriak osatuta, taldean lan egiteko eta lankidetzan aritzeko gaitasuna edukita, eta norberarekin eta gainerakoekin errespetuzko jarrera edukita.

Lehendabizi, galdera hauei bakarka erantzuteko eskatuko diegu ikasleei, eta, ondoren, taldeka denen artean adosteko eskatuko diegu:

- 1. Zer da zuretzat pertsona ekintzailea izatea?**
- 2. Honela definitu DUGU ekintzaile izatea**

Agerian geratu da, horrenbestez, nolakoa den pertsona ekintzailea:

- **Erabakiak hartzeko eta ardurak bere gain hartzeko ekimena du, eta ahalegina eta arazoei aurre egitea balioesten du.**
- **Aukera non dagoen identifikatzen du eta hura lortze aldera borroka egiten du, eta jardueraren bat sortzeko edo abian jartzeko lan egiten du.**
- **Denboraren joanean izandako aldaketa eta eraldaketetara egokitzen da, eta bizitzak dituen egoerei behar bezala egiten die aurre.**
- **Sormena du eta berritzailea eta originala da.**
- **Badaki ideiak azaltzen eta gainerakoena entzuten, eta bere irizpideen arabera hautatzeko gai da.**

2.2. PERTSONA EKINTZAILEAREN PROFILA

2.2.1. GAITASUNAK

Prestakuntza-ibilbide osoa gaitasunaren araberako lan-ereduan oinarrituta dago, eta eredu horretan honi esaten zaio lanerako gaitasuna: lan-jarduera jakin bat abian jartzerakoan tartean izaten diren lan-arloko jakintzen, gaitasunen, abilezien, trebetasunen eta portaeren multzo oso eta konplexuari.

Enpresaren alorrean gaitasun kontzeptua lehendabizikoz McClelland autoreak erabili zuen (1973) eta, hain zuzen, adimen-testa arrakastaren adierazle bakarra ez dela frogatzeko erabili zuen.

Harrezkero, gaitasun kontzeptua asko zehaztu da, eta eginkizun bat arrakastatsua izateko edo lanpostu bateko misioa arrakastatsua izateko lagungarri diren portaerak ere gaitasuntzat hartzen dira (Woodruffe, 1993).

Honako hauek osatzen dituzte **gaitasunak**:

- **Jakintzak:** barneratuta edukitzea garrantzitsua den ezagutza orokorren eta espezializatuen multzoa.
- **Egiten jakitea:** lanabesak, lan-teknikak eta lan-metodoak erabiltzen jakitea, behar bezala ekiteko.
- **Jarrera sozialak:** gaitasunak, jarrerak eta portaerak, behar bezala jarduteko eta elkarri eragiteko.
- **Ikasteko gaitasunak:** ikasteko eta ezaguera berriak barneratzeko gaitasuna. Aldaketetara egokitzen laguntzen digute.

Enpresek edo erakundeek gaitasunak balioesteko edo gaitasunak garrantziaren arabera zerrendatzeko, lanpostu-motari erreparatzen diote; hau da, bakarka egin behar diren lanetarako eta beste pertsona batzuekin batera elkarrekin egin behar diren lanetarako edo publikoarekin egin beharreko lanetarako behar diren gaitasunak ez dira berdinak.

Gero eta garrantzi handiagoa dute lan-merkatuko alderdi horiek, eta, hortaz, oso garrantzitsua da jakitea zein gaitasun diren berariazkoak eta ezinbestekoak lanpostu jakin batzuetarako, eta zein gaitasun diren orokorrak edozein lanpostutarako.

Esaten dugu pertsona bat langile ona dela edo lanpostu horretarako gaitasuna duela, ikasi dituen jakintzak edo trebetasunak erabiltzen dituenean. Eta, halaber, jakintza horiek laneko egoera desberdinetan aplikatzen eta lanaren arabera egokitzen dituenean.

Baina hori ez da nahikoa. Benetako langile ona izateko, gai izan behar da lankideekin hartu-emanak izateko eta haiekin batera parte hartzeko, eginbeharrak talde-lana egitea eskatzen duenean.

Eta, horrezaz gain, arazoei aurre egiteko autonomia eta malgua izateko gai izan behar du, bai eta lana antolatzen laguntzeko gai ere.

Etengabeko ikaskuntzarako oinarrizko gaitasunei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak egindako gomendiozko proposamenean, honela definitzen da oinarrizko gaitasuna: “Testuinguruari egokitutako jakintzen, gaitasunen eta jarrerren konbinazioa. Pertsona gisa egiteko eta garatzeko, hiritar aktibo izateko, gizarteratzeko eta lan egiteko pertsona orok behar dituenak dira oinarrizko gaitasunak”. “Ekimen-senerako eta enpresa-espirturako” oinarrizko gaitasunaren definizioa hau da:

“Ekimen-sena eta enpresa-espirtua duela esaten denean, ideiak ekintza bihurtzeko trebetasuna duela esan nahi da. Sormenarekin, berrikuntzarekin eta arriskuak onartzearekin zerikusia du, bai eta, helburuak lortze aldera, proiektuak planifikatzeko eta kudeatzeko trebetasunarekin ere. Pertsona orok du oinarrian gaitasun hori, ez bakarrik eguneroko bizitzan, etxean eta gizartean, baizik eta lantokian ere bai, lan egiten duen testuinguru kontuan hartzen bada, eta aukerak aprobetxatzeko gai bada; halaber, gizarte- edo merkataritza-jardueraren bat egiten duten edo halakoetan laguntzen duten pertsonak behar dituzten beste gaitasun eta jakintza batzuen oinarria ere bada. (...)”.

Jarraian, pertsona ekintzailearen profila definitzeko eta hura lantzeko oinarrizkotzat hartzen ditugun gaitasunak azalduko ditugu. Hauetako zenbait gaitasun landuko ditugu:

KUDEAKETA GAITASUNA	GAITASUN SOZIALAK
<ul style="list-style-type: none"> • Arazoei konponbidea ematea • Erabakiak hartzea • Planifikatzea 	<ul style="list-style-type: none"> • Rolak eta lidergoa • Taldeko lana • Komunikazioa
NORBERAREN GAITASUNAK ETA EMOZIONALAK	ENPRESA GAITASUNAK
<ul style="list-style-type: none"> • Pentsamendu kritikoa • Nork bere buruarengan konfiantza • Konpromisoa • Frustrazioarekiko tolerantzia 	<ul style="list-style-type: none"> • Sormena • Ekimena • Arriskuak balioestea eta onartzea

2.2.2. GAITASUNAK LANDU

HELBURUA

Arlo profesionalari eta pertsonalari bideratuta lantzea gaitasun guztiak (kudeaketa-gaitasunak, sozialak, pertsonalak eta enpresa-gaitasunak).

KONTZEPTUAK

Oinarrizkotzat hartu ditugun zortzi gaitasun landuko ditugu:

- Sormena
- Taldeko lana
- Rolak eta lidergoa
- Komunikazioa
- Erabakiak hartzea
- Nork bere buruarengan konfiantza
- Arazoei konponbidea ematea
- Frustrazioarekiko tolerantzia

PROZEDURA

- Sormena lantzeko estrategiak barneratu; horretarako, irudimena sustatzeko eta gauzak beste ikuspegi batetik ikusteko jarduerak eta ariketak egin.
- Lan-taldeetan parte hartzeko, norberaren ideiak eta sentimenduak komunikatzeko ohiturak garatu.
- Arazoei aurre egiteko estrategiak barneratu (rol-jokoak, talde-dinamikak)
- Gaitasunak landu, jardueren eta ariketen bidez, ikaslearen adinaren arabera. Hau da, DBHko 1. zikloko ikasleentzako jarduerak, eta DBHko 2. zikloko ikasleentzako jarduerak.

1. GAITASUNA

SORMENA

Sormena ideia eta konponbide berritzaileak eta erabilgarriak sortzeko gaitasuna da; hala, eguneroko bizitzako erronkei eta arazoei aurre egiteko.

Zalantzarik gabe, gaitasun garrantzitsuenetako bat da, kultura ekintzaileari dagokionez. Aldaketa, orijinaltasuna eta gauza berriak sortzearekin edo gauzak beste modu batera ikustzearekin zerikusia du.

Beste izen batzuk ere baditu: sormena, pentsaera originala, irudimena, pentsaera dibergentea... Sormenezko pentsaera honi esaten zaio: ideia edo kontzeptu berriak sortzeari, edo ezagunak diren ideien eta kontzeptuen artean asoziazio berriak sortzeari; halako pentsaera izateak, normalean, konponbide originalak sortzea eragiten du.

Kontzeptu horrek hiru funtsezko zentzu hauek hartzen ditu bere baitan: :

- Gauza berriak asmatzeko egintza (agudezia).
- Konponbide originalak emateko gaitasuna.
- Mundua aldatzeko edo eraldatzeko nahia.



Gure kulturen eta enpresan, oro har, ez da gaitasun hori bultzatu; izan ere, arauak haustearekin eta akatsak egitera ausartzearekin lotu izan da, nolabait. Logikaren arabera, modu linealean pentsatzera irakasten digute.

“Gizarteak” gutaz espero duena ez betetzeko beldur gara, eta “ahots apal” boikoteagile moduko bat sortzen da, gure motibazioa eta gure ekintzak mugatzen dituen eta gauzak bere horretan uztea hobe dela esaten diguna.

Garrantzitsua da halakoetan beste jarrera bat izatea, ekintzaile izateak arriskuak onartzea esan nahi baitu, ohiko logikari aurre egitea, eta, hortaz, akatsak egitera ausartzea.

Ez dugu porrotaren beldur izan behar, sormena abian jartzeko oztopo ohikoenetako bat baita.

JARDUERA-GAITASUNA 1

1. eta 2. jarduera: **ARAZO BATEN SORMENEZKO KONPONBIDEA**

3. jarduera: **SORMENA LANTZEKO ARIKETAK**

DBH-KO 1. ZIKLOA. 1. eta 3. JARDUERA

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA. 2. eta 3. JARDUERA



1. jarduera: **ARAZO BATEN SORMENEZKO KONPONBIDEA**

HELBURUA

- **Sormena** bakarka eta taldean suspertzea
- **Talde-jarrerei** erreparatzea, arazo bati irtenbidea ematean
- **Elkarren arteko eraginak** aztertzea, arazo bati irtenbidea ematean

ADINA:
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA:
Iraupena: 50 minutu

MATERIALA:
Paper eta arkatz bana.

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE
7-9 laguneko azpitaldeetan antolatu

GARAPENA

Irakasleak azalduko die arazo bati sormenezko konponbidea eman behar dietela, eta denek ados egon behar dutela, ahal dela. Eztabaida-prozesuari adi erreparatu behar diote guztiek, amaieran talde osoak aztertu beharko baitu.

“Herriko plazan harri handi bat dago. Alkateak harria kendu nahi du, baina ikaragarri handia da. Mugitzea oso garestia da, milioi asko balio du; dinamitaz apurtzea eta gero harri-zatiak kentzea merkeagoa da, baina garestia, hala ere, eta, gainera, leherketarekin plaza inguruko etxeak hondatzeko arriskua dago.”

Zer egingo zenukete?

Konponbidea

Zulo handi bat egin, harria zuloraino mugitu eta bertan sartu, eta lurra kendu.

Aukera bat da, baina ez bakarra.

Hamabost minuturen buruan, zer konponbide eman dien galdetuko die azpitaldeei irakasleak. Guztiek konponbideren bat eman arte, ezin da aurrera egin; jarduera bukatu duten azpitaldeek, gainerakoei erreparatuko diete, baina ez dute haien arteko eztabaidan parte hartuko.

Segidan, gela guztia elkartuko dugu, eztabaida-taldeko kideen jarrerei buruz hitz egiteko, eta jarrera hauek bereiziko ditugu:

- a) Gutxi parte hartu dutenak;
- b) Gainerakoen ideiak onartzeko oztopoak jarri dituztenak;
- c) Eztabaidan urduri edo beren buruarekin seguru ez daudela erakutsi dutenak;
- d) Liderren rola dutenak.

2. jarduera: **ARAZO BATEN SORMENEZKO KONPONBIDEA**

HELBURUA

- **Sormena** bakarka eta taldean suspertzea.
- **Talde-jarrerei** erreparatzea, arazo bati irtenbidea ematean.
- **Elkarren arteko eraginak** aztertzea, arazo bati irtenbidea ematean.

ADINA:
DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA.

DENBORA:
Iraupena: 50 minutu

MATERIALA:
Paper eta arkatz bana.

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE
7-9 laguneko azpitaldeetan antolatu

GARAPENA

Irakasleak azalduko die arazo bati sormenezko konponbidea eman behar dietela, eta denek ados egon behar dutela, ahal dela. Eztabaida-prozesuari adi erreparatu behar diote guztiek, amaieran talde osoak aztertu beharko baitu.

Segidan, irakasleak arazoa azalduko die azpitaldeei, eta hamabost minutu izango dituzte konponbidea emateko:

“Ana lagun baten etxera joan zen autoz, eta hara iritsi zenean ikaratu egin zen, mutur hase-rreko zakurra ikusi baitzuen. Anaren pozerako, zakurra arbola bati lotuta zegoen, eta Ana han zegoela ohartu zenerako, kateak ez zion harenganaino iristen uzten.

Baina etxean inor ez zegoenez, Anak autorako bidea hartu zuen berriro. Iristen ari zela ezusteko bat izan zuen: zakurra autoaren ondoan zegoen. Katea luzea zen eta zakurra autoaren bi ateetaraino iristen zen. Inguruan ez zegoen makilarik edo antzekorik, eta Anak ez zuen adorerik zakurrari aurre egiteko”.

Nola lortu zuen Anak autoan sartzea, animaliak ukitu ere egin gabe?

Konponbidea

Poliki-poliki arbolari bueltak ematen hasi zen. Eta zakurra haren atzetik joan zenez, katea arbolan korapilatu zen.

Hamabost minuturen buruan, zer konponbide eman dien galdetuko die azpitaldeei irakasleak, eta ondorioa ateratzeko erabili duten prozedura azaltzeko ere bai.

Guztiek konponbideren bat eman arte, ezin da aurrera egin; jarduera bukatu duten azpitaldeek, gainerakoei erreparatuko diete, baina ez dute haien arteko eztabaidan parte hartuko.

Segidan, gela guztia elkartuko dugu, eztabaida-taldeko kideen jarrerei buruz hitz egiteko, eta jarrera hauek bereiziko ditugu:

- a) Gutxi parte hartu dutenak;
- b) Gainerakoen ideiak onartzeko oztupoak jarri dituztenak;
- c) Eztabaidan urduri edo beren buruarekin seguru ez daudela erakutsi dutenak;
- d) Liderren rola dutenak.

3. jarduera: **SORMENA SUSTATZEKO ARIKETAK**

HELBURUAK

- **Sormena** bakarka eta taldean suspertzea.
- **Talde-jarrerei** erreparatzea, arazo bati irtenbidea ematean.

ADINA :
GUZTIAK

DENBORA:
Iraupena: 60 minutu inguru

MATERIALA:
Koloretako arkatzak

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

1. ZER BERDINTASUN DAUDE...

- Txorizo-ogitarteko baten eta bolaluma urdin baten artean?
- Egutegi baten eta moto baten artean?
- Landa-etxe baten eta erloju baten artean?
- Udako pijama baten eta paella-plater baten artean?
- Ezpain-margo baten eta tarta baten artean?
- Hortzetako eskuila baten eta ordenagailu baten artean?

2. NOLAKOAK OTE DIRA ETORKIZUNEAN...

- Etxeak?
- Janaria?
- Autoak?
- Bidaiak?

3. MARRAZTU...

Komenigarria da, nahitaezkoa ez bada ere, koloretako arkatzak erabiltzea

- Ustekabea
- Poza
- Ikara
- Haserrea

2. GAITASUNA

TALDEKO LANA

Funtzio desberdinak eta beren artean osagarriak diren funtzioak betetzen dituzten pertsonen osatutako multzo bat da taldea; helburu komunak dituztelako daude elkarrekin eta guztiek taldekoak direlako benetako sentimendua edukitzeaz gain, badakite zenbait eginbehar dituztela.

Langileei positiboki gehien eragiten dien baldintzetako bat lan egiten duten enpresan lagunartekotasuna edukitzeko eta taldean lan egiteko aukera ematen diena da, taldean lan egiteak oso emaitza onak eman baititzake; izan ere, egin beharreko lanak ondo egin daitezzen gogoia edo irrika suspertzen da.

Lan-taldeetan hainbat arau ezartzen dira, eta horiek taldeko kide guzti-guztiek errespetatu behar dituzte.

Argitu beharreko bi kontzeptu garrantzitsu: lan-taldea eta taldean lan egitea.

Lan-taldea lan jakin bat egitea edo nork bere buruari jarritako lana egitea helburu duten pertsona-multzoa da, trebetasunen eta gaitasunen arabera multzokatuta, eta koordinatzaile baten gidaritzapean lan egiten dutela.

Taldean lan egitea esaten denean, ezarritako helburuak lortzeko giza talde batek erabiltzen dituen estrategia-, prozedura- eta metodologiak-multzoari egiten zaio erreferentzia.

Elkarrekin lan egiten duten pertsonen lan-taldea osatzen dute, betetzen dituzten funtzioen artean elkarrekiko dependentzia dagoenean eta, halaber, bakarka aritzen direnean baino kreativeagoak eta produktiboagoak izatea lortzen badute.

Lana benetan eraginkorra izan dadin, nahitaezkoak dira oinarrizko hiru faktore hauek:

- Xede komuna izatea .



- Inplikaturak dauden pertsonen arteko lankidetzak.
- Trebetasun eta komunikatzeko bide eraginkorrak.

Hona hemen lan-talde eraginkorrek izaten dituzten **ezaugarriak**:

- Kideak elkar ulertzen eta onartzen dira.
- Komunikazioa irekia da.
- Kideak taldearen lan egiteko moduaren arduradun sentitzen dira.
- Beren arteko harremana lankidetzakoa da.
- Arazoei eta gatazkei aurre egiten diete eta horiei konponbide konstruktiboa ematen diete.

Lan-talde baten oinarria konpromisoa, konfiantza eta erantzukizuna da.

Taldean lan egitea zer den adierazteko adibide egokia da musika-bandarena. Bandako kideak bakarka aritzen dira txandaka, eta gainerako musikariak, uneko protagonistaren inspirazioa kontuan hartuta, automatikoki egokitzen dira

haren saiora. Bakarlariak jotzeari uzten dio eta beste protagonista bati ematen dio txanda.

Banda bat eginda dagoenez, konfiantza sortzen da; kide guztiek bat egiten dute, baina nor bere nortasunari eta berezitasunari eusten dio, eta hori da, hain zuzen ere, taldean lortzen den elementu bat. Pertsona guztiek “nik irabazi/zuk irabazi” estrategia erabiltzen badute sortuko da konfiantza.

- Pertsona bakar batek gainerako kideak kontrola eta manipula ditzake.
- Enpresak edo erakundeak ezarri ez dituen helburuak, arauak eta balioak gara daitezke.
- Kide bakoitzaren ahalegina batuta baino txikiagoa da taldearen produkzioa.
- Taldeko kide jakin batzuk baztertu edo haiek gutxietsi daitezke.

Taldean lan egitearen alde onak:

- Produktibitate handiagoa, taldearena zein norberarena.
- Komunikatzeko eta informatzeko sistema eraginkorrak.
- Helburuekiko konpromiso handiagoa.
- Lan-giro hobea.
- Eginkizun konplexuak hobeto egiten dira.
- Lana zuzentzea, kontrolatzea eta berrikus-tea errazagoa da.
- Enpresan edo erakundeetan lagun gehiago integratzea errazagoa da.
- Taldeko kideen arteko koordinazioa, eta talde horren eta enpresan dauden gainerako taldeen arteko koordinazioa hobea da.
- Afiliazio-beharra bete egiten da.
- Nor bere buruarengan segurtasun handiagoa du.
- Garapen pertsonala eta/edo profesionala errazagoa da.
- Sormena suspertu egiten da.

Taldean lan egitearen alde txarrak:

- Denbora gehiago behar izaten da.

LAN ERAGINKORAREN EZAUGARRIAK

1. Helburuak behar bezala zehaztuta daude: kide bakoitzak betetzen duen lanaren erreferentzia-puntua da.
2. Funtzioak behar bezala zehaztuta daude: taldea osatzen duten kide guztiek gai izan behar dute azaltzeko norberaren lanak eta taldeko gainerako kideen lanak zertan eragiten dion helburu komunari.
3. Gaitasun teknikoa: egin beharreko lana egiteko gaitasuna izan behar dute taldeko kide guztiek.
4. Komunikazioa: nor bere iritzia eta sentimenduak adierazteko aske dela sentitu behar du taldeko kide orok.
5. Arazoei eta gatazkei konponbidea emateko sistemak.
6. Lankidetzaren sustatzea, lehiaren gainetik.
7. Kide delako sentimendua: taldeko kideek harro eta gustura daudela erakusten dute, taldeko kide direlako.


JARDUERA-GAITASUNA 2

DBH-KO 1. ZIKLOA

4. jarduera: **PERTSONA LANGILEA: IDEALA ETA ZITALA**

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

5. jarduera: **PANTOMIMA LABURRAK**



4. jarduera: **PERTSONA LANGILEA: IDEALA ETA ZITALA**

HELBURUA

- **Taldeko lana** garrantzitsua dela jabetzea.
- **Talde-jarrerei** erreparatzea, arazo bati irtenbidea ematean.
- **Elkarren arteko eraginak** aztertzea, arazo bati irtenbidea ematean.

ADINA :
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA:
Iraupena: 30 minutu

MATERIALA:
Paper eta arkatz bana

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE
7-9 laguneko azpitaldeetan antolatuta

GARAPENA

- Irakasleak azpitaldeak osatzeko eskatuko die parte-hartzaileei, eta guztiak kopuru berdinekoak izan behar dute.
- Irakasleak azpitaldeei azalduko die pertsona langile ideal batek bete beharko lituzkeen 7 ezaugarri eta pertsona langile zital baten beste 7 ezaugarri idazteko zerrenda batean; guztiek ados egon behar dute.
- Azpitalde bakoitzak ezaugarri horiek aho batez erabaki ondoren, gainerako azpitaldeekokin alderatuko dituzte zerrendak. Azpitalde bakoitzak ezaugarri horiek zergatik hautatu dituen azalduko du, bai eta ados nola jarri diren ere.

5. jarduera: **PANTOMIMA LABURRAK**

HELBURUA

- **Taldeko lana** zer den eta eginkizun bat bete ahal izateko gainerako pertsonen ezaugarrietara egokitzea beharrezkoa dela frogatzea
- **Talde-jarrerei** erreparatzea, arazo bati irtenbidea ematean
- **Elkarren arteko eraginak** aztertzea, arazo bati irtenbidea ematean

ADINA :
DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

DENBORA:
Iraupena: 50-60 minutu

MATERIALA:
Paper eta arkatz bana

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE
5 laguneko azpitaldeak

GARAPENA

- Irakasleak eskatu die ikasleei pertsonaia bat asmatzeko, nor berea eta isilean (izena, lanbidea eta bizitzan duen motibazioa), eta paper batean idazteko. Pertsonaiak norberarekiko ahalik eta desberdinena izan behar du.
- Irakasleak 5 laguneko azpitaldeetan banatuko du gela, ausaz.
- Irakasleak azpitalde bakoitzari adieraziko dio fikziozko pertsonaia horiek elkarri aurkeztu behar diotela, eta, ondoren, pantomima labur bat prestatu behar dutela asmatutako fikziozko pertsonaia horiek nolakoak diren adierazteko. Hogei minutuan prestatu behar dute antzezlana.
- Azpitalde bakoitzak bost minutuko antzezlana egingo du gainerakoen aurrean.

3. GAITASUNA

ROLAK ETA LIDERGOA

Lidergoa aurrea hartzeko, talde bat kudeatzeko, batzeko, bultzatzeko, sustatzeko, motibatuzeko eta ebaluatzeko gaitasunari deitzen zaio.

Dena dela, lidergoaren barruan hainbat sailkapen egiten dira, eta horiek liderren edo zuzentzeko gaitasuna ikasi dutenen ezaugarrien arabera dira.

Talde-buru izateak ez du nahitaez esan nahi lider denik.

Lidergoaren xede nagusietako bat ezarritako helburuak lortze aldera pertsonen arteko lan-sareak sortzea eta horiek sendotzea da.

Pertsona liderraren ezaugarriak:

- komunikatzailea da berez
- badaki nola eragin gainerako pertsonengan
- badaki motibatzen
- harremanak sustatzen ditu taldean
- bere estiloa du arazoei aurre egiteko
- badaki boterea beste batzuen esku uzten ere, botere gehiago lortzeko

- ankideen denbora planifikatzen eta antolatzen du
- sinergia sortzen du talde-kohesioa lortzeko

■ **Liderra**, besteak beste, taldea **motibatuta** edukitzeko xedea duen pertsona da, eta taldea osatzen dutenen lan-kontzentrazioa handia izan dadin eta haiek helburuak oso garbi izan ditzaten arduratzen den pertsona.

■ Lankideentzat garrantzitsua zer den dakien norbaitek zuzentzen baditu pertsonak, hark hartzen dituen erabakiekiko konfiantza dutela lan egitea ia erabat ziurra da.

LIDERGO MOTAK:

1. **Autokratikoa edo autoritarioa:** pertsonengan eragiteko modutzat hartzen du boterea. Komunikazioak noranzko bakarra du.
2. **Parte-hartzailea edo demokratikoa:** boterea banatzen du eta harekin lan egiten duten pertsonak aintzat hartzen ditu. Komunikazioak bi noranzko ditu.
3. **“laissez faire” edo lidergo liberala:** liderraren zeregina pasiboa da, boterea taldearen esku uzten du. Ez du inoiz taldeko gainerako kideek egiten dituzten ekarpenei buruzko iritzirik ematen, ez eta haiek ebaluatzen ere. Erabateko askatasuna dute, eta eskatzen dutenean bakarrik dute liderraren laguntza.

TALDE BATEAN HAUTEMAN DAITEZKEEN ROLAK

Pertsona-mota asko daude:

1. Konponbideak proposatzen, ideia berriak ematen saiatzen dena
2. Informazioa eskatzen duena
3. Iritzia adierazten duena
4. Ideiak eta proposamenak laburbiltzen eta batzen dituen
5. Gainerakoek egiten dituzten ekarpenak balioesten eta onartzen dituen
6. Taldeko beste kide batzuek parte har dezaten mugatzen edo parte hartzera bultzatzen dituen
7. Arauak ezartzen dituen
8. Taldekideek hartzen dituzten erabakiei men egiten diena
9. Portaera erasokorra duena eta norberaren onerako lan egiten duena
10. Taldeari oztopoak jartzen eta haren garapenari enbarazu egiten diona, garrantzirik ez duten beste gai batzuetara bideratuta taldea
11. Gainerakoen gainetik nabarmendu nahi duena
12. Parte hartzen ez duena
13. Proposamenak norberaren intereserako ematen dituen.

Taldea garatzen eta helburuak lortzen emandako laguntzaren arabera, esan dezakegu **ROL POSITIBOAK** (sustatzen eta bultzatzen dutenak) eta **ROL NEGATIBOAK** (oztopoak jartzen dituztenak) daudela.

JARDUERA-GAITASUNA 3

DBH-KO 1. ZIKLOA

6. jarduera: **NOR DA LIDER?**

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

7. jarduera: **PERTSONA LIDERRAREN EZAUGARRIAK**



6. jarduera: **NOR DA LIDER?**

HELBURUA

- Liderrak dituen balioak aztertzea.
- Erabaki indibidual batek eragiten dituen emaitzak eta talde-erabaki batek eragiten dituenak alderatzea.

ADINA :
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA:
Iraupena: 60 minutu

MATERIALA:
Paper eta arkatz bana

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- Irakasleak gela azpitaldeetan antolatuko du eta horiei azalduko die azpitalde bakoitzean ikasturte bukaerako festa antolatzeko oniritzia lortzen saiatu behar duen pertsona bat egon behar duela.
- Azpitalde guztiek eginbeharrekoa amaitu ondoren, jarduerari buruzko iritziak emango dituzte azpitaldeetan.
- Irakasleak, amaieran, lider eta lidergo on baten ezaugarriak azalduko ditu.

7. jarduera: **PERTSONA LIDERRAREN EZAUGARRIAK**

HELBURUA

- Liderrak dituen balioak aztertzea.
- Erabaki indibidual batek eragiten dituen emaitzak eta talde-erabaki batek eragiten dituenak alderatzea.

ADINA :
DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

DENBORA:
Iraupena: 60 minutu

MATERIALA:
“Pertsona lider batek dituen ezaugarriak”
biltzen dituen orriaren kopia

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- Hamabi parte-hartzaile baino gehiago badaude, irakasleak azpitaldeak osatuko ditu, lana hobeto egin ahal izateko: pertsona lider batek dituen ezaugarriak biltzen dituen orriaren kopia bana emango die parte-hartzaileei.
- Ondoren, erabaki indibidual bat hartzen saiatuko dira parte-hartzaile guztiak, esku artean duten orrian adierazten diren jarraibideak kontuan hartuta.
- Ezaugarri horiek lehentasun-hurrenkeran jarriko dituzte; horretarako, hamar minutu inguru izango dituzte.
- Bakarkako lana amaitu ondoren, irakasleak adieraziko die talde-erabakia hartu behar dutela. Azpitalde guztiek talde-erabakia idazteaz arduratuko den ordezkari bat hautatuko dute, gero hark gelaren aurrean azaltzeko. Gutxi gorabehera hogeita hamar minutuz arituko dira lider baten ezaugarrien sailkapenari buruz eztabaidatzen.
- Azken erabakia hartu ondoren, azpitaldeko ordezkariak talde-erabakiaren emaitza gelaren aurrean emango du jakitera.

LAN-ORRIA

PERTSONA LIDER BATEK DITUEN EZAUGARRIEN ZERRENDA

Argibideak:

Lider baten hamabi ezaugarri idatzi ditugu zerrenda batean. Ezaugarri horietako bakoitzean zenbaki bat jarri behar duzu. Hala, zure iritziaren arabera, ezaugarri garrantzitsuenaren ondoren 1 zenbakia jarriko duzu; 2 zenbakia bigarren ezaugarri garrantzitsuenaren ondoren, eta, horrela, 12 zenbakira arte —hau da, lider batentzat garrantzi gutxien duen ezaugarria arte—.

Ezaugarriak:	Bakarka	Taldean
A. Bilerak irauten duen denbora guztian, behar bezala bideratzen du.		
B. Adiskidetsua eta lagunartekoa da.		
C. Ideia berriak eta interesgarriak ditu; sormena du.		
D. Badaki entzuten eta gainerakoak ulertzen saiatzen da.		
E. Jarrera irmoa du eta ausarta da, ez du zalantzarik izaten.		
F. Akatsak jendaurrean onartzen ditu.		
G. Guztiek uler dezaten saiatzen da.		
H. Aukerak ematen ditu, arazoei konponbidea ematen pertsona guztiek lagun dezaten.		
I. Askotan egiten ditu goraiipamenak eta oso gutxitan kritika negatiboak.		
J. Adostea gustatzen zaio.		
K. Zorrotz betetzen ditu arauak eta prozedurak.		
L. Ez du inoiz gorrotoa edo satisfakzio eza erakusten.		

4. GAITASUNA

KOMUNIKAZIOA

“Komunikazioa eraginkorra izan dadin, kontuan izan behar dugu guztiok ez dugula munduari buruzko ikuspegi bera, norik berea baitu; hor-taz, hori dakigula, gainerako pertsonekin komu-nikatzeko abiapuntutzat hartu behar dugu”.

Anthony Robbin.

Sentimenduak, pentsamenduak, ikuspun-tuak, iradokizunak ematen ditugu jakitera. Hitzez eta idatziz komunikatzen gara, baina baita keinuekin, gorputzarekin, ahots-tonuare-kin, jarreraren bidez eta portaeren bidez ere. Beste norbaitek hauteman dezakeen guztia eta mezua duen guztia.

Hitzezkoa ez den komunikazioa faktore askok osatzen dute: aurpegi-espresioak, begi-ratuak, gorputz-jarrerak, eskuekin egiten diren keinuek, hizketan ari direnen arteko distan-tziak, ukitze fisikoak, ahotsak (tonuak, bolume-nak, argitasunak, abiadurak, moteltasunak eta hitz betegarriek esaten denaren esanahiari egi-ten diote), etab.

Komunikazio **idatziari** dagokionez, jakinarazi nahi den informazioaren arabera, erakunde edo enpresetan hainbat agiri-mota izaten dira. Hona hemen ohikoenak: lan-kontratua, gutunak, posta elektronikoa txostenak, liburuxkak, enpresako egunkariak, iragarki-taula, kartelak, etab.

Komunikazio idatzia oso garrantzitsua da lan-alorrean. Izan ere, informazio, agindu eta



eskaera asko egin behar izaten dira, eta horiek idatziz jasota edukitzea komenigarria da; esate baterako, lan-baldintzak, zigor-jakinazpenak, baimen-eskaerak...

Agiri-idatzi guztiek baldintza hauek bete behar dituzte:

- **Argitasuna:** ulerterraza izan behar du eta interpretazio bakarra egiteko aukera eman behar du.
- **Edukia,** berriz, gaiaren edo kronologiaren arabera antolatu behar da.
- **Laburra:** zehatzak izan behar dugu eta har-tzailearen lekuan jarri. Ez dira adibide ge-hiegi jarri behar. Hitz eta esaldi laburrak erabiltzea komeni da.

Ondoren, ahozko komunikazioaren eta komunikazio idatziaren alde onak eta alde txarrak aipatuko ditugu:

	AHOZKO KOMUNIKAZIOA	KOMUNIKAZIO IDATZIA
ALDE ONAK	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio azkarra • Komunikazio malgua • Igorleak unea eta tokia aukeratzen du • Erantzuna berehalakoa izan daiteke • Hitzekoak ez diren keinuak egin daitezke (aurrez aurre) • Jende gehiagorekin komunika daiteke (aurrez aurre) 	<ul style="list-style-type: none"> • Mezua jasota geratzen da • Hartzaileak mezua nahi adina aldiz irakur dezake, erabat ulertu arte • Egokia da mezuak luzeak eta konplexuak badira • Norberaren erritmoaren arabera barneratzen dute mezua hartzaileek
ALDE TXARRAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ahaztu daiteke • Ez da jasota geratzen • Mezua luzea edo konplexua bada, galdu daiteke 	<ul style="list-style-type: none"> • Denbora gehiago behar da • Inpertsionala da • Erantzuna ez da berehalakoa

JARDUERA-GAITASUNA 4

DBH-KO 1. ZIKLOA

Ariketa: **EGUZKI-EKLIPSEA**

8. jarduera: **TELEFONOA HONDATUTA**


9. jarduera: **DIKTATUTAKO MARRAZKIA**

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

Ariketa: **EGUZKI-EKLIPSEA**

9. jarduera: **DIKTATUTAKO MARRAZKIA**

10. jarduera: **INFORMAZIO-GALERA**





Ariketa: **EGUZKI-EKLIPSEA**

Koronelak komandante laguntzaileari:

“Bihar goizeko bederatzietan, eguzki-eklipsea izango da, eta halakoak ez dira egunero gertatzen. Gizon eta emakume guztiak patiora joango dira, kirola egiteko arropa soinean daramatela. Nik neuk azalduko diet fenomenoaren nondik norakoak. Euria egiten badu, ezer ikusiko ez denez, gimnastikako aretora joango dira”.

Komandanteak kapitainari:

“Koronelak agindu du bihar goizeko bederatzietan, eguzki-eklipsea patioan. Euria egiten badu, eklipsea gimnastikako aretoan izango da eta kirola egiteko arropa soinean. Halakoak ez dira egunero gertatzen”.

Kapitainak tenienteari:

“Koronelak agindu du, kirola egiteko arropa soinean daramazuela, bihar bederatzietan, eguzki-eklipsearen inaugurazioa gimnastikako aretoan euria egiten badu, eta halakoak ez dira egunero izaten”.

Tenienteak sarjentuari:

“Bihar, bederatzietan, koronelak, kirola egiteko arropa soinean daramala, eta halakoak ez dira egunero gertatzen, eguzkiaren eklipsea eragingo du gimnastikako aretoan eguraldi ona egiten badu, eta patioan euria egiten badu”.

Sarjentuak kaboari:

“Bihar bederatzietan, koronelak eragingo duen eklipsea kirola egiteko arropa soinean daramala, eguzkiarengatik izango da. Euria egiten badu gimnastikako aretoan, eta ez egunero gertatzen, bilera orokorra patioan”.

Soldaduek atera zuten ondorioa:

“Dirudienez, bihar euria egiten badu, koronelak eguzkiaren eklipsea eragingo du gimnastikako aretoan. Lastima halakoak ez diren egunero gertatzen!”.

8. jarduera: **TELEFONOA HONDATUTA**

HELBURUA

- Informazioa pertsonen interpretazioaren arabera desitxuratzen dela frogatzea.
- Jasotako informazioa beste iturri batzuetan egiaztatzea.

ADINA:
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA :
Iraupena: 30 minutu inguru

MATERIALA:
Mezua paper baten idatzita.

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- 8 boluntario eskatuko dira gutxienez, eta horiek zenbakitu egingo dira. Bat izan ezik, gainerako guztiak gelatik aterako dira. Gainerakoak ikusleak izango dira.
- Xedea ez da hitz berberak erabilia kontatzea istorioa, baizik eta mezuaren mamia ez galtzea.
- Irakasleak behin bakarrik irakurriko dio mezua 1. ikasleari; gero, 2. zenbakia duen ikasleari deituko diogu eta lehenak bigarrenari entzun duena kontutako dio, inork ezertan lagundu gabe. Eta horrela, banan-banan sartuko dira gainerakoak gelara, eta aurrekoak kontutako dio entzundakoa.
- Azken ikaskideak ikusletzat egin dutenei kontatuko die.
- Informazioa batak besteari kontatzean izan diren aldaketa guztiak idatziko dituzte ikusletzat egin duten ikaskideek.
- Ariketa amaitzen denean, irakasleak irakurri duen lehendabiziko mezuak eta azken ikaskideak kontatu duen mezuak zerikusia baduten azalduko dute ikusleek.
- Irakasleak eztabaida bat abiaraziko du, mezua argi eta garbi ez edukitzeagatik gertatzen den desitxuratzeari buruz hausnar dezaten ikasleek; izan ere, oro har, atentzioa gehien eman diguna gordetzen dugu buruan, edo guretzat garrantzitsuena dena. Berriak eta gertaeren berri nola izaten dugun, eta horiek nola jakinarazten dizkiguten eztabaida dezakegu; hau da, interesaren eta interpretazioaren arabera informazioa nola desitxura daitekeen.

ISTORIOA:

“Esan didate Maria duela hiru ordu irten dela bidaiari Loiuako aireportutik, baina telebistan entzun dut 3. aire-geltokiko langileak greban daudela. Aire-geltoki horretan, KONPAINIAko hamabost abioetako batek matxura izan du motorrean, eta greba egiten ari ziren langile askok matxura ez dutela konponduko adierazi dutenez, litekeena da hori izatea atzeratzearen benerako arrazoia”.

9. ariketa: **MARRAZKI DIKTAKETA**

HELBURUA

- Entzundakoaren bidezko komunikazioa bultzatzea.
- Noranzko bakarreko komunikazioak dituen mugak aztertzea.

ADINA:
GUZTIAK

DENBORA :
Iraupena: 40 minutu inguru

MATERIALA:
Mezua paper baten idatzita.

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- Argi esan behar zaie ariketa amaitu arte ezin diotela ikaskidea egiten ari denari begiratu, ez eta diktatzen ari den pertsonari galdetu ere. Horrek, halaber, hizkuntza argia, laburra eta egokia erabili behar du, gaizkiulerturik egon ez dadin.
- Taldea bikoteka banatzen da, eta horiek elkarri bizkarra ematen diotela jarri behar dute.
- Irakasleak bikoteetako kide bati marrazki berdina banatuko die. Irakasleak marrazkia auke-ratzean, taldearen adina eta haien ezaugarriak hartu behar ditu kontuan. Oso garrantzitsua da jakinaren gainean egotea marrazki abstraktuak azaltzea eta horiei buruzko azalpena uler-tzea —irudi geometrikoak, esaterako— zailagoa dela, ohiko egoerak irudikatzen dituzten iru-diak baino (etxeak, paisaiak, etab.).
- Marrazkia begi-bistan duenak (bikote bakoitzeko pertsona batek) ikaskideari marrazkia dik-tatuko dio, eta hark ezin izango du ez hitz egin, ez galdetu, ezta iradokizunik egin ere.
- Bikote guztiek amaitu eta gero, jatorrizko marrazkiak ikusi gabe, marrazki bera diktatuko dute, baina beste arau batzuk dituztela. Hau da, fase berrian galderak egin daitezke eta, gai-nera, marrazkiari buruzko azalpenak aurrez aurre emango dizkio (hitzezkoa ez den komuni-kazioa ere izan dezaten).
- Bi fase horietan egindako marrazkiak aldera daitezke: noranzko bakarreko komunikazioan ezin zioten elkarri begiratu eta bi noranzkoan, ordea, bai.
- Marrazkiak egiteko behar izandako denbora ere aldera daiteke, baita zehaztasuna ere: Nola sentitzen ziren azalpena bakarrik entzun ahal izan zutenean?, zer komunikazio-mota zen kasu batean zein bestean?, nola eragiten dute beste komunikatzeko moduek (begiradak, aurpegi-espresioak...?), zer oztopo ditu hitzezkoa ez den hizkuntzak, ez badu keinuen lagun-tzarik?...

10. jarduera: **INFORMAZIO-GALERA**

HELBURUA

- Informazioa pertsonen interpretazioaren arabera desitxuratzen dela frogatzea.
- Jasotako informazioa beste iturri batzuetan egiaztatzea.

ADINA:
DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

DENBORA:
Iraupena: 30 minutu inguru

MATERIALA:
Mezua paper baten idatzita.

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- 8 boluntario eskatuko dira gutxienez, eta horiek zenbakitu egingo dira. Bat izan ezik, gainerako guztiak gelatik aterako dira. Gainerakoak ikusleak izango dira.
- Xedea ez da hitz berberak erabilia kontatzea istorioa, baizik eta mezuaren mamia ez galtzea.
- Irakasleak behin bakarrik irakurriko dio mezua 1. ikasleari; gero, 2. zenbakia duen ikasleari deituko dio eta lehenak bigarrenari kontatuko dio entzun duena. Eta gauza berbera egingo du ikaskide guztiekin, gelara sartu ahala.
- Azken ikaskideak ikusletzat egin dutenei kontatuko die.
- Informazioa batak besteari kontatzean izan diren aldaketa guztiak idatziko dituzte ikusletzat egin duten ikaskideek.
- Ariketa amaitzen denean, irakasleak irakurri duen lehendabiziko mezuak eta azken ikaskideak kontatu duen mezuak zerikusia baduten azalduko dute ikusleek.
- Irakasleak eztabaida bat abiaraziko du, mezua argi eta garbi ez edukitzeagatik gertatzen den desitxuratzeari buruz hausnar dezaten ikasleek; izan ere, oro har, atentzioa gehien eman diguna gordetzen dugu buruan, edo guretzat garrantzitsuena dena. Berriak eta gertaeren berri nola izaten dugun, eta horiek nola jakinarazten dizkiguten eztabaida dezakegu; hau da, interesaren eta interpretazioaren arabera informazioa nola desitxura daitekeen.

ISTORIOA:

“Jakinarazi digutenez, 483 lagun atera ezinik geratu dira eraisketa baten azpian, eta zikloia pasa ondoren hasi ziren erreskate-lanetan. Milaka lagun ari da sendagaiak, bendak eta beste zenbait gauza bertara eramaten. Baina gaineratu dutenez, atera ezinik geratu den jendea ez da istripuagatik izan, baizik eta bahitu egin dituztelako, atera ezinik daudenen artean oso pertsona dirudunak baitaude.”

5. GAITASUNA

ERABAKIAK HARTZEA

Erabakiak hartzea prozesu bat da, bizitzaren hainbat egoerari irtenbidea emateko aukera edo moduen artean egiten den hautaketa; eguneroko bizitzako egoera horiek arlo askotan gerta daitezke: lanean, familian, sentimenduen arloan, enpresan, etab.; hau da, une oro hartzen dira erabakiak eta horien arteko desberdintasuna hau da: erabakiak hartzerainoko prozesua edo modua.

Erabakiak hartzea, funtsean, aukera guztien aurrean bat hautatzea da, unean daukagun edo izan dezakegun arazoren bati irtenbidea emateko.

Erabaki okerra hartzen dudan guztietan, hurrengo erabakia ere oker hartzen dut.

Harry S. Truman

Erabaki-motak:

1. Programatutako erabakiak: askotan hartzen diren erabakiak dira; hau da, behin eta berriz hartzen dira eta horiek hartzea ohiko bihurtzen da; erabaki egituratuak ere esaten zaie.

Esate baterako, *Nike* etxearen kasuan, telebistan publizitate-tartea erostea erabaki programatu bat da.

2. Programatu gabeko erabakiak: ez-egituratuak ere esaten zaie, gutxitan gertatzen diren arazoei edo gertaerei aurre egiteko hartzen diren erabakiak dira.



Nike etxearen adibidearekin jarraituz, saskibaloi-oinetako modernoagoak eta aurreratuagoak diseinatzeko modua eta horiek merkaturatzeko modua izango litzateke.

Erabakiak hartzeko prozesua

1. Arazoa deskribatu eta aztertu.
2. Konponbidea emateko dauden aukerak aztertu.
3. Konponbide bakoitzak berekin ekarriko dituen ondorioak kontuan hartu, eta aukera guztiak balioztatu.
4. Aukera onena identifikatu.
5. Hartutako erabakia abaian jartzera ausartu eta ekin.
6. Emaitzak aztertu. Erabakia abian jarri ondoren, arazolari irtenbidea eman zaion edo ez aztertzea ezinbestekoa da; hau da, espero genuena lortzen ari garen edo ez.


JARDUERA-GAITASUNA 5

DBH-KO 1. ZIKLOA

11. jarduera: **ELKARRI LOTUTAKO TALDEAK**

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

12. jarduera: **NASA**



11. jarduera: **ELKARRI LOTUTAKO TALDEAK**

HELBURUA

- Irudimena lantzea, arazoei sormenezko erantzunak emate aldera
- Talde-estrategiak osatzea

ADINA:
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA:
Iraupena: 40 minutu

MATERIALA:
HIRU KARTOI MEHE

PERTSONA KOPURUA:
20 parte-hartzaile

GARAPENA

- Irakasleak azalduko die arazo bati konponbidea emateko eman beharreko urratsak aurkitzeko teknika bat ikastea dela xedea.
- Taldea hiru azpitaldetan banatuko dugu eta kartoi mehe bakoitzeko kokatuko dira azpitaldeak.
- A taldearen kartoi meheak honako hau dio: “Zuentzat guztiontzat ohikoa den arazo bat hautatu behar duzue guztion artean (esaterako, goizetan asko kostatzen zait jaikitzea)
- Arazoa hautatu ondoren, A taldea B taldea dagoen lekuraino joan eta hautatu duten arazoa jakinaraziko die, urratsez urrats.
- B taldearen kartoi meheak honako hau dio: “arazoa zein den jakin ondoren, burura etortzen zaizkizuen konponbide guztien zerrenda egin behar duzue”. Amaitzen dutenean, C taldeari azalduko diote.
- C kartoi meheak honako hau dio: “ Aipatu dituzten konponbide guztien artean, arazo bati konponbidea emateko egokien iruditzen zaizkizuenak hautatu behar dituzue”
- 10 minutu talde bakoitzeko.
- Talde bakoitzak idatzi beharrekoa idatziko du kartoi mehean, nork bere kartoi mehean. A taldeak, arazoa; B taldeak, konponbideen zerrenda; eta C taldeak, konponbidea.
- Amaitutakoan, korruan jarri eta konponbideei buruz hitz egin, nola saiatu diren konponbidea ematen, etab.

12. jarduera: **NASA**

HELBURUA

- Hartutako erabakiak aztertzea.
- Lankidetzaren alderdi onak bizitzea.
- Erabakiak hartu behar direnean, zer faktorek duten eragina identifikatzea.
- Taldeko harremanari erreparatzea eta aztertzea.

ADINA:
DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

DENBORA :
Iraupena: 30 minutu

MATERIALA:
ERANTZUN-ORRIA

PERTSONA KOPURUA:
5 laguneko azpitaldeetan antolatuta

GARAPENA

- Parte-hartzaile guztiei azaldu behar zaie 5 astronautaz osatutako talde bateko kide direla; espazio-ontzi batean daudela, eta arazo-teknikoak direla eta, ontzi inudetik 300 kilometrora ilargiratu direla, ilargiaren aurpegi argiztatuan. Bizirik jarraitzeko aukera bakarra inude ontzi-raino oinez joatea da. Ilargiratze horretan, baina, tresneria gehiena hondatu egin zen. Gauza hauek bakarrik geratu dira onik.
 - 1 pospolo-kaxa
 - 1 poto janari kontzentratu
 - 20 metro nylon-soka
 - Zetazko jausgailua (30 metro koadro)
 - 1 su txiki eramangarri
 - 2 pistola (7,65 Mm)
 - 1 poto esne-hauts
 - 2 oxigeno-bonbona (50 litrokoak)
 - 1 izarren mapa (ilargiko konstelazioa)
 - 1 poto pneumatikoa, CO2 botilak dituena
 - 1 iparrorratz magnetiko
 - 20 litro ur
 - Seinaleak egiteko bengalak (hutsean erretzen dira)
 - 1 lehen sorospentarako botika-kutxa
 - 1 eguzki-energiaraz dabilen irrati-hargailu eta -igorgailu.
- Egin beharrekoa: 15 gauza horiek garrantziaren arabera ordenan jarri behar dituzte (garrantzitsuenetik hasita).
- Lehendabizi, bakarka egingo dute ariketa eta, ondoren, 5-6 laguneko taldeak egingo dituzte eta beste guztien artean adostuko dute beste hurrenkera bat.

- Irakurri emaitza. Norberaren datuak eta emaitza alderatuko dute, eta azken emaitzak idatzi. Esate baterako, 4. postuan kokatuta dagoen gauza bat gutxi 6. postuan kokatu badugu, 2 puntuko aldea daukagu (6-4); beste gauza bat 8. postuan badago eta gutxi 5. kokatu badugu, 3 puntu daukagu (8-5); eta amaieran, puntu guztiak batu behar dira (beti handienari kendu behar zaio). Gauza berbera egingo du bakarkako zein taldeko puntuazioarekin.

EMAITZA:

- (15) — 1 pospolo-kaxa. Ez du ezertarako balio, llargian ez dago oxigenorik
- (4) — 1 poto janari kontzentratu. Jatea ezinbestekoa da.
- (6) — 20 metro soka. Gora igotzeko balio du.
- (8) — zetazko jausgailua (30 metro koadro). Eguzki-izpietatik babesteko eta zauriak lotzeko balio du
- (13) — Su txiki eramangarria. Ez du balio llargiaren aurpegi argiztatuan
- (11) — 2 pistola. Haren propulzio-indarra aprobeitza daiteke
- (12) — 1 poto esne-hauts. Urarekin nahastuta edan behar da
- (1) — 2 oxigeno-bonbona. Arnasa hartzeko
- (3) — 1 izarren mapa. Orientatzeko ezinbestekoa
- (9) — 1 poto pneumatikoa, CO2 botilak dituena. Zuloen arteko propulsiarako baliagarriak dira botilak.
- (14) — 1 iparrorraz magnetiko. Litekeena da llargian polo magnetikorik ez egotea
- (2) — 20 litro ur.
- (10) — Seinaleak egiteko bengalak. Laguntza eskatzeko
- (7) — 1 lehen sorospentarako botika-kutxa. Oso garrantzitsuak dira pilulak eta xiringak.
- (5) — 1 irrati-hargailu eta -igorle; ontzi inudearekin komunikatzeko aukera.

OBJEKTUAK	SAILK. BAKARKA	SAILK. TALDEA	SAILK. NASA ESP	ALDEA SAILK BAKAR- KA -SAILK.NASA	ALDEA SAILK. TALDEA - NASA
1 pospolo-kaxa					
1 poto janari kontzentratu					
20 metro nylon-soka					
zetazko jausgailua (30 metro koadro)					
1 su txiki eramangarri					
2 pistola (7,65 Mm)					
1 poto esne-hauts					
2 oxigeno-bonbona (50 litrokoak)					
1 izarren mapa					
1 poto pneumatiko, co2 botilak dituena					
1 iparrorratz magnetiko					
20 litro ur					
Seinaleak egiteko bengalak					
1 lehen sorospenetarako botika-kutxa					
1 eguzki-energiar dabilen irrati-hargailu eta -igorgailu					

6. GAITASUNA

NORK BERE BURUARENGAN KONFIANTZA

“Autoestimua” bizitzaren joanean izandako sentipenak eta esperientziak oinarri hartuta, nork bere buruari buruz egiten duen balorazioari esan zaio.

Argiak edo inozoak, gai edo ezgai sentitzen gara, nolakoak garen gustatzen zaigu edo ez. Norberaren burua aztertzea oso garrantzitsua da, haren baitan baitago norberaren izan-gaitasuna gauzatzea eta bizitzako norberaren lorpenak. Hala, norberaren buruarekin gustura sentitzen diren pertsonak, autoestimu ona dutenak, bizitzan izaten diren erronkei eta erantzukizunei aurre egiteko gai dira eta horiei konponbidea emateko ere bai. Autoestimu txikia dutenek, aldiz, beren buruari mugak jartzen dizkiote eta porrot egiten dute.

Errealitatea oso konplexua da eta eguneroko bizimoduak agerian uzten digu. Adibideak:

- lagunekin oso hiztunak izatea eta etxean isilak.
- futboleko gaizki egiteak ez du esan nahi gainerako kiroletan txarra izatea.
- azterketaren bat gaizki egiteak ez du esan nahi ikasteko balio ez denik.

Nerabezaroa fase kritikoenetako bat da, autoestimua garapenean; pertsona gazte



batek nortasun sendoa eratu behar du eta zer gaitasun dituen jakin behar du; horrez gain, bere burua gai ikusi behar du konfiantza osoz bizitzan aurrera egiteko. Garai horretan, maite diren pertsonetikiko dependentzia izatetik (familia) independente izatera pasatzen da, norberaren gaitasunetan konfiantza izatera. Haurtzaroan autoestimu sendoa garatzea lortzen bada, krisiei aurre egitea errazagoa da, baita pertsona heldua izatea ere.

Autoestimua zati handi bat izandako lorpenen eta porroten arteko balantzearen baitan dago. Hain zuzen ere, lortu nahi duguna lortzeko eta beharrak bete direla ikusteak emozio positiboak izatea eragiten du eta autoestimua gora egiten du.

Hona hemen autoestimu hobea izateko moduetako bat: gudan gustatzen ez zaizkigun alderdiak aldatzeko ahalegina egitea. Gustatzen ez zaizkigun alderdi horiek aldatzea errazagoa izan dadin, metodo jakin bat landuko dugu.


JARDUERA-GAITASUNA 6

DBH-KO 1. ZIKLOA

13. jarduera: **ESKUAK**

DBH-KO 2. ZIKLOA eta BATXILERGOA

14. jarduera: **NOR DA NOR**



13. jarduera: **ESKUAK**

HELBURUA

- Norberaren pertzepzioez eta besteek dituzten pertzepzioez jabetzea.
- Norbera hobeto ezagutzea.
- Komunikazioa sortzea taldean.
- Talde-kohesioa bultzatzea.

ADINA:
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA :
Iraupena: 30 minutu inguru

MATERIALA:
Koloretako errotuladoreak eta kartoi meheak

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- Irakasleak azalduko du jarduera taldean egin behar dela.
- Taldekide guztiek koloretako kartoi mehe bat hartu, bertan norberaren eskua marraztu eta moztu egin behar dute.
- Eskuaren gainean norberaren buruaz zerbait positiboa idatzi.
- Elkarri lagundu, eskua bizkarrean itsasteko.
- Ondoren, gauza positibo gehiago idatzi zuen ikaskideen kartoi mehez egindako eskuan.
- Guztiok zerbait idatzi ondoren, bizkarrean itsatsita duzuen eskua kendu eta isilean irakurri idatzita duzuen.
- Irakasleak eztabaida bat jarriko du abian, “bizkarrean zaplatatxo bat emateak” duen alde positiboari buruz hausnartzeko eta halakoek autoestimua goratzen duten eztabaidatzeko.

14. jarduera: **NOR DA NOR**

HELBURUA

- Norberaren pertzepzioez eta besteek dituzten pertzepzioez jabetzea.
- Norbera hobeto ezagutzea.
- Komunikazioa sortzea taldean.

ADINA:
DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

TIEMPO:
Iraupena: 30 minutu inguru

MATERIALA:
Barruan ispilua duen kaxa bat

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- Irakasleak barruan ispilua duen kaxa bat du. Boluntario bat eskatu eta irakaslearen mahairaino gerturatzeko eskatu.
- Boluntarioak kaxa barruan dagoena deskribatu behar du, baina adjektiboak erabilia. Gainerako ikaskideek pentsatzen dute pertsona ezagunen edo famaturen bat dela, eta ez dute espero bere burua deskribatzea boluntarioak.
- Denbora-tarte bat eman, taldeak asma dezan; asmatzen ez badu, beste pertsona bat aukeratu.
- Boluntarioak ezin du ezer esan, jolasaren dinamika bertan behera gera ez dadin.
- Jarduerari buruz hausnartzeko bide emango duen eztabaida jarriko du abian irakasleak.

7. GAITASUNA

ARAZOEI KONPONBIDEA EMATEA

Arazo orotan dago bateraezintasunen bat. Esate baterako, neskato batek eta mutiko batek jostailu berbera nahi dute; edo pertsonaren batek ondo pasatzeko zerbait egin nahi du eta lan edo ikasi egin behar du...

Zenbait arazo-mota:

1. Ezkutukoak: arazoa ez da kanporatzen. Esate baterako, bi lagunek gai jakin bati buruz hitz egin nahi ez dutenean, ez haserretzeko.
2. Desplazatuak: kanporatu eta hitzez adierazi den gatazka ez denean pertsona horien arteko benetako arazoa. Esate baterako: etxeo lanengatik haserre daudenean bi lagun, baina telebistako saioarengatik eztabaidatzen dutenean.
3. Hautematen ez direnak: inplikaturik dauden pertsonak arazo bat dutela jabetzen ez direnean.

Haserreak beharrezkoak dira pertsonak zein taldeak heldu egiteko. Haserrea, gatazka berez ez da txarra, horri konponbide emateko modua da ona edo txarra.

Thomas eta Filman autoreek diote arazoei edo haserreei aurre egiteko bost modu daudela:

1. Baztertu: arazoari ez zaio aurre egiten eta, hortaz, egoerak ez du inoiz hobera egiten.

2. Lehiatu: beste pertsonaren interesak ez dira errespetatzen. Beste pertsona hori nire interesen aurka jarri den norbait bihurtu da.
3. Moldatu: norberaren interesak eta helburuak baztertu egiten dira. Konponbide faltsua da, dependentzia-harremana sortzen baita.
4. Konpromisoa hartu: pertsonak zenbait helburu lortzen ditu. Moldatzearen eta lehiatzearen arteko oreka da. Adibidez: lagunetako batek zinemara joan nahi du eta besteak antzerkira. Arazoa konpontzeko, egun batean zinemara joan dira eta hurrengoan antzerkira.
5. Elkarlana egin: egoerari beste ikuspegi bat ematen zaio eta bi alderdien interesak hartzen dira kontuan. Aurreko adibidearekin jarraituz, mendira joango lirateke, bien gustukoa delako.

Arazo bati modu positiboan aurre egiten ikasteko, nahitaezkoa da zenbait oinarrizko gaitasun lantzea:

1. Komunikazioa: behar bezala komunikatzen, negoziatzen jakin behar da.
2. Emozioen kontrola: agresibitatea kontrolatu behar da.
3. Enpatia: beste pertsona horren lekuan jartzeko gai izan behar da.
4. Sormena, aurreiritziak alboratu: arazoari konponbidea emateko beste ikuspegi batzuk behar dira.

Hona hemen hiru portaera-mota arazoei aurre egiteko:

PORTAERA PASIBOA:

- Oso ahots-tonu baxua
- Onartzen du gainerako pertsonak zer egin behar duen esatea
- Ez ditu bere eskubideak errespetarazten
- Ez ditu sentimenduak, iritziak ezta pentsamenduak ere adierazten
- Beti beraz aprobetxatzen direlako sentazioa du
- Ez du gatazkarik, ez haserrerik beste pertsona batzuekin
- Pertsona horiek taldean onartzen dira
- Ezkutuan gordetako erremina kanpora daiteteke gainerako pertsonetikiko



PORTAERA ERASOKORRA EDO AGRESIBOA:

- Ahots-tonu altua eta mehatxuzkoa
- Bere eskubideak defendatzen ditu eta ez ditu inoiz gainerako pertsonenak errespetatzen
- Ez du inolako autoritaterik onartzen
- Hitzeg egiten du eraso: irainak, mehatxuak eta aipamen arerriotsuak
- Kosta ahala kosta, nahi duena lortzen saiatzen da
- Askotan betetzen ditu asmoak
- Autoestimu handia izaten du
- Agresibitateak beste pertsonaren agresibitatea ere pizten du
- Ez da pertsona maitatua, baizik eta beldur diote

PORTAERA ASERTIBOA:

- Tonu egokia, atsegina baina irmoa
- Bere eskubideak defendatzen ditu eta gainerako pertsonenak ere bai
- Gainerakoen eskubideak errespetatzen ditu
- Sentitzen eta pentsatzen duena adierazten du
- Gainerakoek ematen dituzten argudioak entzuten dituzte
- Ez du gatazka, ez haserre erasokorrik beste pertsona batzuekin. Eztabaidak konstruktiboak dira
- Taldean onartzen eta maitatzen dute
- Behar adinako autoestimua du
- Askotan onartu behar du bere asmoak ez direla betetzen

JARDUERA-GAITASUNA 7

DBH-KO 1. ZIKLOA

15. jarduera: **NOLA ERANTZUTEN DUZU?**

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

16. jarduera: **ARAZO BAT DAUKAGU**



15. jarduera: **NOLA ERANTZUTEN DUZU?**

HELBURUA

- Arazoei aurre egitean sortzen diren portaerak aztertzea.
- Txanda eskatuta hitz egiten ikastea.

ADINA:
DBH-KO 1. ZIKLOA

DENBORA:
Iraupena: 50-60 minutu inguru

MATERIALA:
EGOEREN KOPIA

PERTSONA KOPURUA:
MUGARIK GABE

GARAPENA

- Irakasleak gela azpitaldeetan banatuko du eta egoera hauek mahaigaineratuko ditu:

Lehendabiziko egoera:

Asteburuan familiarekin mendira joango zinela agindu zenuen, baina lagunek zinemara joateko deitu dizute, eta, hortaz, ezin duzu familiarekin joan. Hilabete honetan hiru aldiz gertatu zaizu gauza berbera. Zure familiak ahal duen guztietan esaten dizu “formalidate gutxi duzula”. Zure amak zera dio: “ Gehiegizkoa da, hirutan esan duzu gurekin etorriko zarela eta hiru aldietan ez gara joan...!. Zure aitak ere gauza bera pentsatzen du. Hona hemen zure erantzuna:

- (oso urduri) “begira..., izan ere..., nik ere nahi nuen film hori ikusi, ulertzea nahi nuke... mesedez, agian hurrengoan... barkatu...”.
- (begietara begiratuta eta ahots-tonu irmoz) “Arrazoi duzue eta ulertzekoa da zuen haserrea. Sentitzen dut eta barkamena eskatzen dizuet. Behin baino gehiagotan gertatu da eta, hortaz, zerbait pentsatu behar dugu berriro ere gerta ez dadin. Zer iruditzen zaizue?”
- (ahots-tonu altua erabilita) Begira, nik ere badut neure bizitza eta zinemara joango direla esan badute lagunek, nik ere joan nahi dut!

Erantzun horietatik zein da **agresiboa, asertiboa eta pasiboa?**

2. egoera:

Arazoa mahai gainean jarri eta haiek hiru erantzun asmatu behar dituzte (agresiboa edo erasokorra, pasiboa eta asertiboa).

Atzo etxean zeundela ikaskide batek telefonoz deitu zizun matematika-liburua eskatzeko. Liburua ahaztuta utzi du gelan eta etxeko lanak egin behar ditu. Larunbata denez eta kalera irteteko lagunekin geratu zarenez, liburua utzi diezaiokezu eta bihar, igandean, itzultzeko eskatu, zuk etxeko lanak egin ahal izateko.

Baldintza horrekin utzi diozu liburua eta hurrengo egunean harekin hitz egiten ari zarela, esan dizue ezetz, atzo neskalagunarekin joan zela zinemara eta gaur egingo dituela etxeko lanak; eta gaineratu du zuk astelehenean egiteko, matematika-eskola aurretik dagoen atsedenaldian.

Zer erantzungo zenuke?

16. jarduera: **ARAZO BAT DAUKAGU**

HELBURUA

- Talde-lanean aritzean, sortzen diren hainbat jarrera aztertzea.
- Txanda eskatuta hitz egiten ikastea.
- Arazo jakin bati aurre egitean, taldea nola antolatu den aztertzea.

ADINA:

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

DENBORA:

Iraupena: 50-60 minutu inguru

MATERIALA:

- Paper-tira solteak taldeko parte-hartzaile guztientzat, eta horietan azaroari buruzko datu 1 edo 2 idatzita.
- Arazoaren fotokopia.

PERTSONA KOPURUA:

20 parte-hartzaile

GARAPENA

- Arazoari konponbidea ematen parte hartuko duten ikasleak aukeratuko ditu irakasleak. Lanean parte hartuko duen taldea erdian jarriko da, eta gelako gainerako ikasleak haien inguruan jarriko dira, taldeak zer egiten duen ikusteko moduan kokatzen direla.
- Irakasleak azalduko die arazo bati buruzko hainbat datu banatuko dituela eta haien egin-beharra alderdi guztiak aztertzea eta eskatzen zaien konponbidea eman behar diotela (erantzun zehatzak egindako galderei). Ez dago datu faltsurik, baina tartean garrantzi gutxi daturen bat egon daiteke; hau da, datua benetakoa den arren, ez du balio konponbidea emateko. Ahalik eta denbora gutxienean konpontzeko arazoa, nahi bezala antola dezakete taldea”.
- Irakasleak hautatutako arazoari buruzko zenbait argibide banatuko dizkie parte-hartzaile guztiei —datu bat paper-tira bakoitzeko—.
- 30-40 minuturen buruan ariketa amaitzen ez badute, jarduera eten egingo da eta, konponbidea eman ondoren, prozesua aztertuko da.

ARAZOA

Eraiketa bat izan da, orain artean ulergaitza. Zenbait argibide lagungarri izan daitezke eraiketaren nondik norakoak argitzeko. Poliziak lan hau egiteko eskatu dizuete.

Hona hemen taldeak aurkitu eta jakin beharrekoak:

- Hiltzailearen izena.
- Arma.
- Zer ordutan izan zen eraiketa.
- Eraiketa izandako tokia.
- Zergatia.

ARGIBIDEAK

1. Hernandez andrea senarra lanetik atera zain zegoen, eraikinaren atariko gela batean.
2. Igogailuzainak gaueko 12:30ean bukatu zuen lana.
3. Jorge Roig-en hilotza parkean aurkitu zuten.
4. Jorge Roig-en hilotza gaueko 1:20an aurkitu zuten.
5. Medikuaren txostenaren arabera, Jorge Roig-k ordubete zeraman hilda hilotza aurkitu zutenerako.
6. Hernandez andreak ez zuen Jorge Roig ikusi eraikinaren ataritik ateratzen, bera han zain zegoela.
7. Jorge Roig-k duen odol-mota bereko odol-orbanak aurkitu dituzte eraikinaren sotoko gara-jean.
8. Poliziak ezin izan zuen Jose Perez aurkitu, heriotza gertatu ondoren.
9. Jorge Roig-k duen odol-mota berbera aurkitu zuten Jose Perezen apartamentuko korridoreko moketan.
10. Jorge Roigen hilotza aurkitu zutenean, bala-zauri bat zuen zangoan eta labana-zauri bat bizkarrean.
11. Jose Perezek tiro egin zion ezezagun bati gauerdian bere apartamentuan.
12. Jose Perezen negozioek ia porrot egin zuten, Jorge Roig-k bezeroak kendu zizkiolako, ziriak eta gezurrak esanda.
13. Igogailuzainak poliziari esan zion Jorge Roig ikusi zuela gaueko 12:15ean.
14. Jorge Roigi zangotik kendu zioten bala Jose Perezek zuen pistolakoa zen.
15. Bala bakar bat falta zuen Jose Perezen pistolak.
16. Igogailuzainak esan zuen Jorge Roig-k ez zirudiela larri zaurituta zegoenik.
17. Labana bat aurkitu zuten eraikinaren sotoko gara-jean, eta ez zuen inolako hatz-markarik.
18. Odol-orbanak zeuden igogailuan.
19. Hernandez andrea eta Jorge Roig lagun minak izan ziren, eta behin baino gehiagotan izan zen haren apartamentuan.
20. Adiskidetasun hori dela eta, Hernandez andrearen senarra jeloskor zegoen.

21. Hernandez andrearen senarra ez zen atariko gelan izan gaueko 12:30ean; hau da, normalean lana amaitzen duen orduan. Emazteak bakarrik itzuli behar izan zuen etxera. Senarra beranduago iritsi zen.
22. Gaueko 12:45ean Hernandez andreak ez zuen senarraren autoa aurkitu, hark lan egiten zuen eraikinaren sotoko garajea.
23. Eraiketa gertatu zen gauean euri asko egin zuen.
24. Hernandez senar-emateek arazo ekonomiko larriak zituzten.

ARAZOAREN ERANTZUNA

- Gaueko 12:15 eta 12:30 bitartean Jose Perezek azaletik zauritu zuen Jorge Roig, eta igogailuan sartu zenean, Hernandez jaunak (igogailuzainak) labankadaz hil zuen, jeloskor baitzegoen.

8. GAITASUNA

FRUSTRAZIOAREKIKO TOLERANTZIA

Asmo bat, desio bat, proiektu bat edo ilusio bat betetzen ez denean sortzen den egoera eta/edo bizipen emozionala da frustrazioa.

Frustrazioarekiko tolerantzia ere gaitasun emozional deitutakoen artean dago, besteak beste, nork bere buruarengan konfiantza izatearekin eta kontzientzia emozionalarekin batera.

Gaitasun horiek oso garrantzitsuak dira prestakuntza-prozesuaren barruan; izan ere, bizitzarako oinarrizko gaitasunak dira, eta bizitzaren erronkei aurre egin ahal izateko pertsonak prestatzea dute helburu.

Horiek barneratzeko ikaskuntza-prozesua luzea da. Esate baterako, ikasle batek bigarren mailako ekuazioen problemak behar bezala ebazten ikasteko, hiru hilabete inguru behar ditu. Frustrazioarekiko tolerantzia izaten ikasteko, ordea, urte asko behar dira eta, hortaz, haur hezkuntzan hasi beharko litzateke irakasten, eta bizitza osoan luzatu.

Haurtzaroan, frustrazioarekiko tolerantzia txikia izatea portaera normala da, eta ez da harrizkoa; izan ere, haurrek izaten dituzten nahiak eta desioak oinarrizko behar fisiologjikoekin dute zerikusia: jan, lo egin...

Hazten ari diren heinean, ohartzen dira ezinezkoa dela beti nahi dutena berehala lortzea, eta tolerantzia izaten ikasten hasten dira, bai eta nahiak halabeharrez betetzeko zenbaitetan oztopoak izaten direla edo atzera daitezkeela onartzen ere.

Hau da, nolabait, frustrazioarekiko tolerantzia izaten ikasten hasten dira autonomia gehiago izaten duten heinean, ingurune hurbilean mugitzeko gaitasun handiagoa duten heinean eta desioak beren kabuz betetzen hasten




diren heinean, beste norbaitek egin ditzan egoeran zain gelditu beharrean. Pixkanaka-pixkanaka ikasten dute zenbait muga daudela, pertsonalak zein hurbileko ingurunean, bai eta arauak, ohiturak, legeak eta antzekoak daudela ere.

Guk nahi ez bezalako egoerak askotan sortzen dira, eta ez dira gauzak guk nahi bezala ateratzen. Hainbat espektatiba sortzen ditugu, eta gero oso zaila da guk pentsatu bezala betetzea.

Hortaz, oso garrantzitsua da frustrazioak bideratzen jakitea eta kontuan hartzea gauzak aurreikusita bezala ez ateratzea oso normala dela.

Frustrazioarekiko tolerantzia txikia izateak berekin dakar desatsegina den guztiarekiko gehiegizko sentsibilizazioa izatea eta, horrek, halaber, lupa baten efektu berbera eragiten du, egoeren alderdi txarra handiagotu egiten baita. Gauza itsusiak izugarriak dira; txarrak ikaragarriak; eta gogaikarriak jasanezinak. Horrenbestez, pertsona horien bizitza tragedia hutsa da eta gertaera estresagarri ugari izaten dituzte.

Maiz egoten dira umore txarrean, asaldatuta, triste, minduta, umiliatuta edo munduarekin haserre, izaten dituzten nahiak edo desioak ez



direlako betetzen. Biktima sentitzen dira, etengabe dira kexu, gainerakoei eta munduari leporatzen diote errua.

Uneari, mementoari ematen diote garrantzia, gaizki sentitzen direnean bat-batean ondo sentitu nahi dute berriz ere, eta ez dira ohar-tzen frustrazioarekiko tolerantzia izango balute, epe luzaera izango luketela ongizatea.

Frustrazioarekiko toleranteak diren pertsonentzat, ordea, bizitza atseginagoa da, eraman-garriagoa eta ez dute hainbesteko estresa; arazoak aukera bihurtzeko gai dira; arazoei konpon-bidea errazago ematen diote, ez baitiete hainbesteko bulkadarekin aurre egiten eta ez dira

ihes egiten saiatzen, ez sentitzeko; errazago onartzen dute samina, sufrimendua, deserosotasuna, porrota, etab.; eta gai dira halako ego-erek gehiegizko nahasketa eragin ez diezaieten.

“Nekeetan irria ezpainetan” esaera zaharra askotan aipatzen eta abian jartzen dutenak dira.

Oinarrizko gaitasuntzat hartzen dugu, per-sona gisa zein maila profesionalean behar bezala garatzeko. Hala, proposatu ditugun jar-duera guztietan, eta taldean lan egin behar dutenean eta soluzioak denen artean adostu behar dituztenean, portaera hori zeharka na-barmen geratzen da prozesu guztian.

2.2.3. NORBERAREN GAITASUN-PROFILA:

Orain artean aztertu dugun guztia kontuan hartuta, norberaren gaitasun-argazkia ateratzeko unea da.

Norberaren interesak eta norberak dituen lehentasunak orain arte aztertu ditugun gaitasunekin lotzea du xede jarduera honek.

DBH-KO 1. ZIKLOA

17. jarduera: **ETA NI, ZER?**

BADAKIT EGITEN	GUSTUKOA DUT

DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA

18. jarduera: **AZTERTU ZURE ALDERDI INDARTSUAK**

Nahitaezkoa da gaitasunak identifikatzen ahalegintzea. Hartara, objektiboki zehaztu ahal izango da lan-merkatuaren barruan zein lanpostutara jo daitekeen, bai eta HELBURU PROFESIONALA lortzeko zein gaitasun ikasi edo barneratu behar diren ere.

→ **2. zikloko eta batxilergoko ikasleentzat zerrenda hau erantsi dugu, beren burua ahalik eta ondoen defini dezaten laguntzeko, eta, hala, beheko taulan alderdi ahulak eta indartsuak idatz ditzaten.**

Onarkorra	Ekintzailea	Asertiboa	Eskuzabala
Moldaerraza	Traturako erraza	Zorrotza/Metodikoa	Aldakorra
Balio anitzekoa	Mendekoa	Elkarrizketatzailea	Independentea
Inplikatua	Autonomoa	Adoretsua	Saiatua
Ausarta	Sormenduna	Lotsatia	Txukuna
Lagunartekoa	Alaia	Optimista	Eraginkorra
Gogoetatsua	Behatzailea	Zuzena	Artetsua
Dudatsua	Indartsua	Ahula	Espontaneo

IDATZI ZURE ALDERDI INDARTSUAK

IDATZI ZURE ALDERDI AHULAK

--	--

HELBURUA

Enpresa baten arlo guztiak ezagutzea. Ideia sortzen den unetik enpresa eratu arte zer urrats eman behar diren jakitea.

KONTZEPTUAK

- 3.1. Ideia
 - 3.1.1.- Ideia, enpresa-proiektuaren oinarri
 - 3.1.2.- Ideiak sortzeko metodoak
- 3.2. Marketin-plana
 - 3.2.1. Negozioaren nondik norakoak zehaztu
 - 3.2.2. Prezioa
 - 3.2.3. Banaketa
 - 3.2.4. Publizitatea
- 3.3. Antolaketa
 - 3.3.1. Organigrama
 - 3.3.2. Lan-kontratuak
 - 3.3.3. Forma juridikoa
- 3.4. Finantza-plana
 - 3.4.1. Hasierako inbertsio- eta finantziazio-plana
 - 3.4.2. Eraitzen kontua
 - 3.4.3. Diruzaintza-plana
 - 3.4.4. Balantzea
- 3.5. Enpresa-proiektua idatziz aurkeztu.

PROZEDURA

- Enpresaren arloak azaldu, haien garapenaren berri ikasteko.
- Zati teorikoan landutakoa finkatzeko ariketak egin.
- Ariketen bidez, azken helburua lortzeko jarraitu beharreko atal eta jarraibide guztiak joango dira garatzen; hau da, ziklo batean asmakizunen tailerra, eta bestean negozio-plana.

3.1. IDEIA

3.1.1. IDEIA, ENPRESA PROIEKTUAREN OINARRI

Negozio guztiek ideia on bat izaten dute abiapuntu. Baina askotan ez dugu jakiten nola asmatu ideia hori. Jarrera behatzailea eta sortzailea izanez gero, gure inguruaren berri izan dezakegu eta, beraz, baita zer aukera dauden ere. Mundua aldatuz doa, eta sor daitezkeen egoera berriei erantzunak emateko pistak aurki ditzakegu, jarrera horri esker.

Hortaz, funtsezkoa da zer egin nahi dugun jakitea, eta egin nahi dugun horrek egingarria izateko oinarri sendorik baduen ala ez hausnartzea. Merkatua aztertzeke hainbat teknika daude, eta gizar-teko behar hori aurkitzen laguntzen dute.

Bezero potentzialei eskaintzen diegun produktua edo zerbitzua giltzarria da gure negozioaren arrakasta bermatzeko; oinarri horren gainean eraikitzen da proiektu osoa. Behar jakin bati erantzun behar dio, ahalik eta kontsumitzaile kopuru handiena erakartzeko.

Adibideak:

Gaur egun, gero eta jende gehiago bizi da bakarrik. Hori dela eta, kontsumitzeko ohiturak aldatu egin dira: etxe txikiagoak behar dira, janaria etxera eramaten duten negozioak ugaritu egin dira...

Bada aintzat hartu beharreko beste aldaketa bat ere: bizi-itxaropena nabarmen luzatu da eta, beraz, adinekoek zerbitzu batzuk behar dituzte.

3.1.2. IDEIAK SORTZEKO METODOAK

Nola sortzen dira ideiak?

BRAINSTORMING EDO IDEIA JASA

Jende multzo bat bildu eta oso denbora-tarte laburrean ahal beste ideia sortzeko modu bat da. Prozesu horretan ez dira aztertzen ideia horiek, eta ez dira kritikatzeko besteen proposamenak. Era guztietako ideiak onartzen dira; zenbat eta gehiago, hobe.

Idatzi egiten dira denbora-tarte batean taldekideei bururatzen zaizkien ideia guztiak. Gero, ideia bakoitza aztertzen da, argitzeko eta kategoriara banatzeko. Azkenik, bozketa egiten da, eta emaitza taldearentzat onenak diren ideien zerrenda izaten da.

BESTE ZENBAIT AUKERA

- Hamaika negozio-ideia sortzen dira eguneroko bizitzako **arazoetatik**.
 - Supermerkatu handietan hartzaindegiak eskaintzea
 - Haurrak eskolara eraman eta ekartzea

- Jabeak lanean diren bitartean txakurrak ateratzea
 - Etxetik mugitu ezin duten pertsoneri asistentzia-laguntza ematea
 - Jantzi distiratsuak, txirrindularientzat
- ✓ Egin ezazu egon ohi zaren lekuetan eta egin ohi dituzun jardueretan (sukaldean, gimnasioan, telebista ikusterakoan, autobusean...) ikusten dituzun arazoan eta beharren zerrenda.
 - ✓ Zerrenda amaitutakoan, aukeratu arazo edo behar multzo bat, eta saiatu konponbideak aurkitzen.
- Modu berean, aurkitu zer **desio** izaten dituzten gizon-emakumeek egunero. Beharrak ez bezala, desioak ez dira ezinbestekoak bizitzeko.
 - Estetikarekiko kezka produktu berriak sortzea ekarri du: *coca cola light*, koloreetako tirikat, etab.
 - Ingurumenarekiko kontzientzia handitu izanak zenbait enpresa-mota berri sortzea eragin du: mezuak bizikletaz banatzeko enpresak, pestizidarik gabeko nekazaritzarako produktu berriak...
 - Aukeratu produktu edo zerbitzu bat, eta saiatu negozio-ideia berriak sortzen, ariketa hauek eginez:
 - **Ordezkatu:** zer ordezkatu ahal izango litzateke ikuspuntuan, materialetan, osagaietan edo itxuran?
 - **Konbinatu:** zer konbinatu ahal izango litzateke dagoeneko baden ideia batekin? Materialak, zapoak, koloreak...
 - **Egokitu:** zeren antza du ideia horrek? Esate baterako, dagoeneko merkatuan baden zerbairen kontsumoa beste jende multzo batentzat egokitu (0,0 garagardoa haurdunentzat).
 - **Handitu:** zer gertatuko litzateke gehitu, luzatu edo gutxituz gero?
 - **Beste erabilera batzuk asmatu:** zer erataraz erabili ahal izango litzateke?

1. ARIKETA: GURE IDEIA

Atal honetan, sormena lantzeko proposatutako jarduerak erabil daitezke.

DBH-KO 1. ETA 2. ZIKLOAK ETA BATXILERGOA:

→ HAU DA GURE IDEIA:

→ IDEIA HAU HONELA BURURATU ZAIGU:

→ HORREKIN, ASMO HAU DUGU:

3.2. MARKETIN PLANA

Enpresaren helburu orokorrekin koherenteak diren merkataritza-helburu batzuk ezartzean datza.

Merkatua bi elementu nagusik osatzen dute: kontsumitzaileek eta lehiakideek.

3.2.1. NEGOZIOAREN NONDIK NORAKOAK ZEHAZTU

Negozio-idea finkatuta dagoenean, aurrera egiteko aukerarik baduen ala ez ikusi behar da. Horretarako, errealitatea eta gure ingurua edota gure balizko negozioarentzat pentsatutako ingurua aztertu behar dira. Bideragarritasun-azterketa edo merkatuaren azterketa egin behar dugu.

Gure bezeroen beharrak ase behar ditu produktu edo zerbitzu zehatz batek, eta kontsumitzaileen itxaropenak ahalik eta gehien bete behar ditu.

Beraz, ea zer behar asetzen dituen aztertu behar dugu (janztea, elikatzea...), eta gure negozioaren bezero potentzialak zein diren zehaztu behar dugu.

Estali nahi ditugun beharrak ase nahi dituen biztanleria-segmentuak osatuko du gure publiko objektiboa. Segmentazioa adinka, sexuka, irabazien araberakoa eta abar izan daiteke.

Adibidez, bizarra ondo moztuta egoteko beharra estali nahi duen negozioaren publiko objektiboa 14 urtetik gorako gizonezkoen multzoa da.

Merkatuaren azterketa enpresa-ekimeneko proiektu baten baitan gauzatzen da, eta hau jakitea du helburu: merkatua aintzat hartuta jarduera ekonomiko bat gutxi gorabehera zenbateraino den bideragarri.

Merkatuaren azterketak hiru oinarri nagusi ditu:

1. Inguru orokorrari buruzko azterketa

Enpresaren inguru osoa aztertzea, esparru edo alderdi askotan; esate baterako, lege-ingurunea, ekonomia-ingurunea, teknologia-eta azpiegitura-ingurunea, gizarte-ingurunea eta ideologia-ingurunea, eta abar.


2. Kontsumitzaileei buruzko azterketa

Kontsumitzaileen portaera aztertzen du, haien kontsumo-beharrak eta behar horiek asetzeko moduak aurkitzeko, haien erosketa-ohiturak nolakoak diren jakiteko eta abar.

Hauxe du azken helburua: datuak eskuratzea, horien bidez kontsumitzaileen ase gabeko eskaria aseko duen produktua edo produktu sorta saltzeko merkatu-teknikak hobetzeko.

3. Lehiakideei buruzko azterketa

Produktuaren merkatu bereko enpresa guztiak aztertu.



Ikerketa **INKESTA** baten bidez egin daiteke. Inkesta egiteko, bezero potentzialen lagin bat erabili ohi da; modu horretan, produktuak aukerarik baduen ala ez ikusten da.

Tresna horrek galdeketa erabiltzen du informazioa lortzeko bide nagusitzat. Galdera-sorten bidez, inkestatuek berek idazten dituzte erantzunak.

Garrantzi handia du ikertzen duenak ezinbesteko informazioa soilik eskaintzeak; hau da, galderak ulertzeko gutxieneko informazioa baino ez. Ikerketaren helburua zein den argitzea ere garrantzitsua da.

Inkesta egiterakoan, zenbait konturi buruz erabaki behar da:

1. Nori egin behar diot inkesta? Emakumeei, gizonei, zer adin duten...
2. Zenbat inkesta egin behar ditut, datuak fidagarriak izan daitezen?
3. Noiz eta non egingo ditut? Data eta toki aproposenak zein diren zehaztu.

Galdera-sorta eraginkorra eta erabilgarria izan dadin, hura prestatzerakoan alderdi hauek zaindu:

1. Galdera gutxi (ez 30 baino gehiago).
2. Galdera itxiak eta zenbakizkoak, hobe.
3. Galderak hizkera bakunez idatzi.
4. Galdera zehatzak egin.
5. Galderak modu neutroan egin.
6. Galdera irekietan, ez eman hautazko aukerarik.
7. Ez egin oroitzeko ahalegin handia eskatzen duen galderarik.
8. Ez egin fitxategiak begiratzea behar duen galderarik.
9. Ez egin zenbakizko kalkulu konplexuak egitera behartzen duen galderarik.
10. Ez egin zuhurtzirik gabeko galderarik.
11. Galderak zuzenean eta modu pertsonalean egin.
12. Galderak ez diezaiela aurreiritzik sortu inkestatuei.
13. Ideia bakar batera mugatutako galderak egin.
14. Ez egin emozio-karga handiko galdera baldintzatzailerik.

GALDERA-SORTA BATEK IZAN DITZAKEEN GALDERA MOTAK:

• Galdera itxiak:

- Atsegin al duzu hondartza? a. bai b. ez
- Oporrak non igaro nahi izaten dituzu?
a. Hondartzan b. Mendian c. Beste nonbait

• Galdera irekiak:

- Zergatik atsegin duzu oporretan hondartzara joatea?

ADIBIDEZ:

- Produktu honek erantzuten al dio zuk daukazu beharren bati? Zer beharri erantzuten dio?
- Produktu honetako zerk erakartzen zaitu?
- Zure ustez, zer alde on ditu lehiakideen produktuekin alderatuz?
- Erosiko al zenuke produktu hau?
 - Bai; zergatik?
 - Ez; zergatik?
- Nork erabiliko luke produktu hau?
- Zer maiztasunez?

2. ARIKETA: INKESTA

DBH-KO 1. ETA 2. ZIKLOAK ETA BATXILERGOA:

- Zehaztu zuen asmakizuna edo produktua/zerbitzua erabiliko duen pertsonaren profila.
- Egin inkesta bat, garatu duzuen asmakizunak edo produktuak/zerbitzuak arrakastarako aukerarik baduen ala ez jakiteko.

3.2.2. PREZIOA

Salmenta-prezioa zehaztea honetan datza: kostu finkoak, aldakorrak eta merkaturatzekoak kalkulatu ondoren, enpresarentzat prezio-estrategiarik egokiena zein den pentsatzea. Prezioa produktua- ren edo zerbitzuaren elaborazio-kostuaren, atera nahi den mozkinaren edo marjinaren eta lehiakide- en prezioen araberakoa izaten da.

Prezioa zehaztea erabaki estrategikoa da, produktua bide onetik joan dadin. Muga batzuk ezarri behar dira. Batetik, gehienezko muga: hortik gora, bezeroak ez du ordaindu nahiko; bestetik, gutxie- nekoa: hortik behera, ez litzateke mozkinik aterako. Beraz, ondo aukeratutako prezioak honetarako aukera eman beharko luke:

- Elkartearen edo enpresaren finantza-helburuak lortzea (onurak edo mozkinak, esate baterako). Kostuek produktua edo zerbitzua gutxieneko zer preziotan sal daitekeen adierazten dute; hortik beherakoa bada, enpresak galerak izango ditu.

$$\text{PREZIOA} = \text{KOSTUAK} + \text{MOZKINAK}$$

- Merkatuaren errealitatera egokitzea (erosiko al dute kontsumitzaileek produktua prezio horre- tan?).
- Produktuaren maila edo posizioari eustea, eta modu koherentean jokatzea.

Prezioan honoko hauek eragiten dute:

- erabiltzen den banaketa-bide motak,
- erabilitako sustapen mota/motak,
- produktuaren kalitateak.

Prezioa bezeroarentzat kalitate onaren adierazlea den kasuetan erabiltzen da prezio altua. *Prestigiorako prezioa* da prezioen gamako goreneko prezio-estrategia (edo gorenetik gertukoa). Jendeak baldintza hauetan erosiko du zerbait *prestigiorako prezioan*:

- Prezio altua kalitate onaren seinale dela uste duenean.
- Balioaren ezaugarritzat jotzen duenean. Besteak bezalakoa ez den talde bateko kide izatearen ezaugarria da.
- Produktu horiek inolako akatsik gabe funtzionatu behar dute. Gaizki funtzionatzeak ekarriko lukeen kostua handiegia denez, onena erosi behar da. Esate baterako, taupada-markagailua.

Prezio baxua, berriz, merkatu zati bat eskuratzeko erabiliko litzateke, epe motzean irabaziak ate- ratzeari uko eginez; horretarako, ondo neurtu behar dira prezio horrek dakarren arrisku ekonomikoa eta geroago egin beharreko prezio-igoerak ekar ditzakeen arriskuak. Oso prezio baxuari esker jendea denda barrura sartu eta bide batez beste produktu batzuk erostera bultzatzen duen produktua da *lilura-produktua*.

Prezioei buruzko politikan aintzat hartu beharreko beste alderdi bat **DESKONTUAK** egitea da. Hainbat deskontu mota egin daitezke: sustapeneko deskontuak edo beherapenak, lehentasunezko bezeroei egindakoak, erosketa-bolumen handiagatik egindakoak...

3. ARIKETA: PREZIOA

DBH-KO 1. ETA 2. ZIKLOAK ETA BATXILERGOA:

- Kalkulatu zer prezio duten zure produktua/zerbitzua egiteko/eskaintzeko behar dituzun material guztiek. Aztertu zer eragin izan dezaketen asmakizunaren edo produktuaren/zerbitzuaren azken prezioan.
- Alderatu lehiakideen prezioarekin, aldizkarietan, Interneten...

3.2.3. BANAKETA

Produktua edo zerbitzua kontsumitzaileengana helarazteko erabiltzen dudan modua da. Horregatik, negozioa martxan jartzeko, garrantzitsua da banaketari buruzko hainbat alderdiri buruz hausnartzea: zuzenean salduko dudan, saltokiren bat izango dudan, garraiatu beharko dudan eta abar. Alderdi horiek zehaztuz, BANAKETA BIDEA nolakoa izango den finkatuko dugu.

BANAKETA BIDE MOTAK

1. ZUZENEKO BIDEA: produktua edo zerbitzua ekoizten edo lantzen duenak zuzenean ematen dio kontsumitzaileari, bitartekaririk gabe. Zerbitzu gehienek horrela funtzionatzen dute:
 - Ile-apaindegi bat, banketxe bat eta abar.
 - Etxez etxeko salmenta: irakurleen kluba...
 - *Vending* sistemako makinak
2. ZEHARKAKO BIDEA: bitartekari batzuk daude hornitzailearen eta erabiltzailearen edo kontsumitzailearen artean. Produktuak egin beharreko bidea osatzen duten bitartekarien kopuruak adierazten du banaketa-bidearen tamaina. Zeharkako bideen artean, bide laburra eta bide luzea bereizi behar dira:
 - Bide laburrak bi maila bakarrik ditu; hau da, bitartekari bakarra dago ekoizlearen eta azken erabiltzailearen artean.
 - Bide luzean, aldiz, bitartekari askok hartzen dute parte (handizkariak, banatzaileak, birsaltzaileak, xehekariek, merkataritza-agenteeak eta abarrek).

Oro har, esan ohi da banaketa-bide laburrek salmenta-prezio baxuak ekarri ohi dituztela eta banaketa-bide luzeek, aldiz, prezio altuak. Baina hori ez da beti horrela izaten: baliteke produktu batek prezio altuagoa izatea ekoizleari zuzenean erosita saltoki batean baino (esate baterako, iturburuan —hau da, upeltegian— erositako ardoak edo cavak).

SALMENTA OSTEKO zerbitzuaren bidez, beste zerbait eskaini nahi izaten zaie bezeroei, produktua eskuratu ondoren. Gure produktuaren kalitatea handitzeko eta gure bezeroak asebetete daitezten lortzeko beste modu bat da.

Beste enpresek ez duten abantailaren bat edo elementu bereizgarriren bat eskaintzea da helburua. *Zerbitzuaren kalitatea* esaten zaio, eta bezeroak leialago bihurtzea du xede: dagoeneko bezeroak lortu ditugunean, gure produktuarekin edo zerbitzuarekin leialak izan daitezen saiatuko gara.

3.2.4. PUBLIZITATEA

Unitate honi ekiteko, publizitateaz zer dakiten taldekideei galdetzen has gaitezke:

1. Zer da publizitatea?
2. Zer publizitate mota eta publizitate-elementu ezagutzen dituzu?
3. Zertarako balio du?
4. Non egiten dugu topo publizitatearekin?
5. Zure ustez, eragiten al digu publizitateak?
6. Zer iragarki atsegin duzu? Azaldu.

Publizitateak helburu hauek ditu: kontsumitzaileari produktu edo zerbitzu jakin batek dituen onuren berri ematea, horretarako beste marka batzuekiko aldeak nabarmenduz; eskaria sortzea; produktu baten (ondasun edo zerbitzu baten) edo marka baten eskariaren joerak aldatzea.

Garrantzitsua da produktua erosteagatik edo erabiltzeagatik bezeroak zer onura edo abantaila izango dituen nabarmentzea.

Publizitatearen adibide bat aldizkari espezializatuetakoa da; adibidez, haurrei buruzko aldizkarietakoa, kultura-aldizkarietakoa... Bezero bati motorrak interesatzen bazaizkio, nekez bilatuko du informazioa haurrentzako aldizkari batean.

Publizitateak **ELEMENTU** hauek ditu:

- **MUSIKA:** ikusizko mezua eta musikaren bidezkoa osagarriak izan daitezke edo independenteak.
- **PERTSONAIAK:** kontsumitzailearekin identifikatzea; ezarri nahi diren gizarte-nolakotasunak nabarmentzen dira (jokabide-ereduak, jomugak...).
- **KOLOREA:** zirrara sorrarazi nahi da, arreta bereganatzeko.
 - **Horia:** arrakasta, lorpenak, dirua, alaitasuna, dinamismoa.
 - **Gorria:** gaztetasuna, grina, dinamismoa, sumina.
 - **Berdea:** natura, freskotasuna, oreka.
 - **Urdina:** freskotasuna, argitasuna, arintasuna, baretasuna.
 - **Zuria:** garbitasuna, purutasuna, neurritasuna, argitasuna.
 - **Beltza:** dotorezia, sofistikazioa.
- **GIROA**
- **ESLOGANA:** ahozko mezuaren muina laburbiltzen du, eta ikuslearen/entzulearen oroimenean finkatzen da.
- **MARKA**
- **PRODUKTUA**

IRAGARKIA ERAGINKORRA IZATEKO FASEAK: AINE

- **Arreta:** kontsumitzaile potentzialaren arreta piztu
- **Interesa:** kontsumitzaile potentzialari asmakizunarekiko edo produktuarekiko/zerbitzuarekiko interesa sorrarazi
- **Nahia:** kontsumitzeko nahia eta beharra eragin
- **Ekintza:** erosarazi

PUBLIZITATE MOTAK

- **TELEBISTA:** telebista-kateetan egindako publizitatea, iragarkien bidez, babesaren ematearen bidez, gai bati buruzko tartetxoaren bidez... Bitarteko garestia da eta eragin handikoa!
- **IRRATIA:** fideltasunez entzuten duten publikoa du, behar jakin batzuk medio edo lehentasun subjektiboak direla eta. Ez da oso garestia, eta egokia da zenbait produkturen kasuetan.
- **EGUNKARIAK ETA ALDIZKARIAK:** informazio bila ari diren pertsonak irakurtzen dituzte; beraz, publizitatearen mezua luzeagoa eta zehatzagoa izan daiteke.
- **PANELAK,** markesinak, garraio publikoa, kartel argitsuak eta abar. Oso zuzena eta txundigarria izan behar du: *kaleko oihu bat* bezalakoa. Zalantzarik gabe, eraginik handiena duen publizitate mota da.
- **SALMENTA-TOKIAN:** salmenta gauzatuko den tokian, erakusketa-altzariak, kartelak, *display* zinema-monitorea, posterrak eta abar ezartzen dira. Garrantzi handiko laguntza da, erostea erabakitzen den tokian egiten baita.
- **FILMAK,** telebista-programak, telesailak, albistegiak eta antzekoak.
- Erabiltzaileen erantzunean eta **ELKARRERAGINEAN** oinarritutako kanpainak, kanpaina konplexuak hala kartelen nola Web tresnen (blogak, argazki eta bideoen bidezko komunitate birtuak) bidez.

Iragarkien bidezko publizitateak gure gustuetan eragitea lortzen du, eta eroatera bultzatzen gaitu. Iragarkietan mezua argi eta garbi adierazi behar da, lehen begiratuan hautemateko moduan.

→ PUBLIZITATE MOTEI buruz hausnartzeko eskatuko diegu ikasleei. Bitarteko bakoitza ongien definitzen duen ezaugarriarekin lotu behar dute:

- | | |
|-----------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Irratia | <input type="checkbox"/> Garestiena |
| <input type="checkbox"/> Telebista | <input type="checkbox"/> Eraginkorrena |
| <input type="checkbox"/> Web orriak, blogak eta abar | <input type="checkbox"/> Eragin handiena duena |
| <input type="checkbox"/> Panelak | <input type="checkbox"/> Merkeena |
| <input type="checkbox"/> Postontzien bidezkoa | <input type="checkbox"/> Informazio oparoena eta zehatzena |
| <input type="checkbox"/> Egunkari eta aldizkarietako iragarkiak | <input type="checkbox"/> Oso erabilia |

4. ARIKETA: IRAGARKIA

DBH-KO 1. ETA 2. ZIKLOAK ETA BATXILERGOA:

→ Talde bakoitzak publizitate-iragarki bat asmatuko du (paperean edo kartoi mehe batean). Jasotako informazioa asmakizunaren edo produktuaren/zerbitzuaren berri emateko erabiliko du.

3.3. ANTOLAKETA

Enpresa nola antolatu pentsatu behar dugu. Horretarako, ezinbesteko jarraibide batzuk aztertu behar ditugu:

- Zer zeregin hartuko dituen bere gain enpresariak, zer zeregin langileek eta zer zeregin bideratuko den azpikontraten bidez
- Zenbat langilek egingo duten lan enpresan, eta zer zeregin izango duen horietako bakoitzak.
- Zer modutan hautatu gure enpresako langileak: aldi baterako laneko enpresen bidez, aholkularitzen bidez, negozio-eskolen bidez, pertsona ezagunak aukeratuz...

3.3.1. ORGANIGRAMA

Enpresa edo erakunde baten antolaketa-egituraren adierazpen grafikoa da. Sailen bidezko egitura erakusten du eta, zenbaitetan, baita sail horiek zein pertsonak zuzentzen dituzten ere. Erakundearen indarrean diren hierarkia- eta eskumen-harremanen eskema egiten du.


Informazio-iturri garrantzitsua da; izan ere, bere bidez, erakundeko pertsona orok eta harekin lotutako edozein pertsonak erakundearen ezaugarri nagusien berri orokorra jasotzen du.

Organigrama orok baldintza hauek bete behar ditu:


- 1) aginte-elementu guztiak, dauden hierarkia-mailak eta haien arteko harremanak bildu behar ditu;
- 2) ulerterraza eta erabilerraza izan behar du; eta
- 3) ezinbesteko elementuak soilik izan behar ditu.

Organigrama mota asko daude, antolaketa-ereduaren arabekoak. Hauek dira ohikoenak:

BERTIKALAK: erantzukizun-maila baxuenak organigramaren behealdean jartzen dira; zenbat eta gorago hainbat eta erantzukizun handiagoko karguak jartzen dira.



HORIZONTALAK: Agintea ezkerretik eskuinera doa; zenbat eta ezkerreago egon kargu jakin bat, hainbat eta erantzukizun handiagoa izango du.



3.3.2. LAN KONTRATUAK

Enpresariaren eta langilearen arteko hitzarmena da. Hitzarmen horren bidez, langileak enpresariaren kontura eta haren zuzendaritzapean zerbitzu jakin batzuk egiteko betebeharra hartzen du, ordainsari baten truke.

NORK SINA DEZAKE KONTRATU BAT?

HAUEK:

- Adin nagusiko pertsonak (18 urtez gorakoak).
- 18 urtez beherakoa izanik, legalki emantzipatuak direnak.
- 16 urtetik 18ra bitartekoak, gurasoen edo ardurapean dituztenen baimena badute. Beren kabuz bizi badira, gurasoen edo tutoreen baimen esplizitua badute.
- Atzerriko pertsonak, ezar dakiekeen legediaren arabera.

IRAUPENA

Lan-kontratu bat mugagabea (finkoa) edo iraupen jakin batekoa (aldi baterako) izan daiteke.

Hasiera batean, lan-kontratu oro mugagabea eta lanaldi osokoa da, lan-kontratuan kontrakorik esaten ez bada.

Aldi baterako kontratu mota bakoitza arautzen duten arauak ezartzen dute zein den kontratuaren gutxieneko iraupena, eta zein gehienezkoa.

LANGILEAREN ESKUBIDEAK

- Langileak eskubidea du:
- Lanaldian zehar lan eraginkorra egiten jarduteko.
- Lanbide-sustapenerako, eta prestakuntza jasotzeko.
- Lanpostuak eskuratzeko diskriminatua ez izateko.
- Osotasun fisikorako eta intimitaterako.
- Itundutako soldataren ordainketa garaiz jasotzeko.
- Lan-kontratuan ezartzen diren gainerako eskubideak ere baditu.

LANGILEAREN BETEBEHARRAK

- Lanpostuaren berezko betebeharrak fede onez eta arduraz jokatzeko printzipioen arabera betetzea.
- Laneko segurtasun- eta higiene-neurriak betetzea.
- Enpresariak/ek duen/duten zuzendaritza-funtzioaren baitan emandako aginduak eta instrukzioak betetzea.
- Enpresarekin lehiatuz, haren lan-jarduera bera ez egitea.
- Produktibitatea hobetzen laguntzea.
- Lan-kontratuan zehazten diren gainerako betebeharrak.

KONTRATU MOTAK


KONTRATU MUGAGABEA: ez da mugarik ezartzen zerbitzuak emateko.

LANALDI PARTZIALEKO KONTRATUA: egunean, astean, hilean edo urtean ordu kopuru jakin batez ematen dira zerbitzuak, beti ere lan-jarduera horretan eta denbora tarte horretan ohikotzat jotzen dena baino ordu gutxiagoz.

OBRA EDO ZERBITZUKO KONTRATUA: enpresaren baitan lanak egitea edo zerbitzuak ematea du helburu. Iraupena lana edo zerbitzua amaitu artekoa da.

HEZIKETA KONTRATUAK

- **PRESTAKUNTZAKO KONTRATUA:** lana egiteko prestakuntza teoriko-praktikoa behar duten gazteei egiten zaie. 16 urtetik eta 21era bitartekoak izan behar dute, eta gehienez ere 2 urteko iraupena izan dezake.
- **PRAKTIKA ALDIKO KONTRATUA:** diplomatura, lizentziatura edo goi mailako beste ikasketak bukatu dituztenetik 4 urte baino gutxiago igaro direnean soilik egin daiteke.
 - Kontratua amaitutakoan, enpresak ziurtagiria eman behar dio, praktiken iraupena, izandako lanpostua edo lanpostuak eta horietako bakoitzean egindako zeregin nagusiak aipatuz.



— Inoiz ezingo da pertsona bat 2 urte baino gehiagoz egon era honetako kontratuarekin, enpresa berean edo enpresa bat baino gehiagotan, titulazio berarekin lotuta.

TXANDA KONTRATUA: langile batek erretiro partziala hartzen duen beste bat ordezkatzeko duenean. Kontratua azken langile horrekin hitzartutako kontratu partzialarekin batera gauzatuko da.

BITARTEKO KONTRATUA: bi helburu hauetako batekin erabiltzen da: arauaren, hitzarmen kolektiboaren edo banakako hitzarmenaren arabera lanpostua gordetzeko eskubidea duten langileak ordezkatzeko edo behin-behinekoz betetzeko, lanpostu bat behin betiko betetzeko hautaketa- edo sustapen-prozesu batek dirauen bitartean.

BEHIN BEHINEKO KONTRATUA: zereginen pilaketa, gehiegizko eskaerak eta abar konpontzea du helburu, eta 6 hilabetez iraun dezake gehienez ere (12 hilabetetan).

3.3.3 FORMA JURIDIKOA

Forma juridiko egokia zein den erabakitzeko, aurrez oso argi izan behar dira irizpideak. Lehenik eta behin, elkarte bat eratu behar dugun ala banakako enpresari gisa jokatu dugun erabaki behar dugu. Erabaki hori zenbait elementuk baldintzatzen dute. Hauek dira elementu horiek:

- Proiektuak zenbat sustatzaile dituen.
- Enpresak zer jarduera-mota dituen.
- Beste pertsona batzuekiko erantzukizunaren muga.
- Alderdi fiskalak.
- Jarduerari ekiteko behar den kapitala.

Negozioak zer forma juridiko hartuko duen eta aukera horren alde egiteko arrazoiak zehaztu behar dira. Elkarte bat eratzea erabakitzen bada, azaldu nola banatuko den kapitala bazkideen artean eta zer erabaki hartuko dituzten.

Jarraian, dauden forma juridikoak azaltzen ditugu, koadro baten bidez (iturria: Espainiako estatuko administrazio orokorra). Gero, xehetasun gehiagoz azalduko ditugu formarik ohikoenak.

NORTASUNA	FORMA		BAZKIDE KOPURUA
PERSONAS FISIKOAK	BANAKO ENPRESARIA		1
	ONDASUN ERKIDEGOA		Gutxienez 2
	SOZIEATE ZIBILA		Gutxienez 2
PERSONAS JURIDIKOAK	Merkataritza-ko sozietatea	SOZIEATE KOLEKTIBOA	Gutxienez 2
		ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIEATEA	Gutxienez 1
		SOZIEATE ANONIMOA	Gutxienez 1
		AKZIOEN BIDEZKO SOZIEATE KOMANDITARIOA	Gutxienez 2
		SOZIEATE KOMANDITARIO BAKUN	Gutxienez 2
	Merkataritza-ko sozietate bereziak	LAN SOZIEATEA	Gutxienez 3
		KOOPERATIBA SOZIEATEA	Gutxienez 3
		ELKARREN BERMERAKO SOZIEATEA	Gutxienez 150
		ARRISKU KAPITALEKO ENTITATEAK	Admin. kontseilua: Gutxienez 3
		EKONOMIA INTERESEKO TALDEA	Gutxienez 2
		BALORE INBERTSIOKO SOZIEATEA	

1. BANAKO ENPRESARIA

- Bere izenean eta enpresa baten bidez merkataritza-, industria- edo lan-jarduera bat egiten duen pertsona fisikoa.
- Jabeak erabateko kontrola du enpresaren gain, eta berak zuzentzen du haren kudeaketa.
- Enpresaren nortasun juridikoa jabearena da (enpresariarena), eta enpresaren betebeharrak guztiak jabeak berak hartzen ditu bere gain.
- Ez dira bereizten merkataritza-ondarea eta jabearen ondare zibila.
- Enpresaren kapitalak muga bakarra du bai kalitatez bai kantitatez: enpresariaren nahia.
- Badu ALDE ON bat, besteak beste: enpresa-forma ezin hobea da oso neurri txikiko enpresen funtzionamendurako.
- Badu ALDE TXAR bat, besteak beste: lan-jardueran sor daitezkeen zorrari bere ondare pertsonalarekin egin behar dio aurre. Enpresaria ezkondata badago, jarduera horien gorabeherak ezkontideari ere eragin diezaioke.

2. ONDASUN ERKIDEGOA

- Halako kontratuaren bidez, zerbaiten edo eskubide baten jabetza pertsona bat baino gehiagoren da, indibisoan.
- Ondasun-erkidegoak ez du berezko nortasun juridikorik. Merkataritza Kodeak zuzentzen du merkataritza kontuetan, eta Kode Zibilak eskubideei eta betebeharrei dagozkien kontuetan.
- Ez da gutxieneko ekarpenik eskatzen. Nahi izanez gero, ondasunak soilik jar daitezke, baina ezin da dirua edo lana soilik jarri. Gutxienez 2 bazkide izan behar ditu.
- Beste pertsona batzuekiko erantzukizuna mugagabea da.

3. SOZIETATE ZIBILA

- Halako kontratuen bidez, bi pertsonak edo gehiagok kapitala jartzen dute guztien artean, irabaziak denen artean banatzeko asmoz.
- Kapitala bazkideen ekarpenez osatzen da, dirutan edota ondasunak edo industria jarriz.
- Hitzarmenak isilpekoak direnean, ondasun-erkidegoari dagozkien xedapenak arautuko dute.
- Eratzeko ez da behar, legez, gutxieneko kapitalik. Gutxieneko bazkide kopurua bikoa da. Bazkideek mugagabeko erantzukizuna dute.

4. ERANTZUKIZUN MUGATUKO SOZIETATEA

- Merkataritza-sozietatea da. Kapital soziala partaidetza sozial banaezin eta metagarrietan banatuta egoten da, eta bazkide guztien ekarpenen bidez osatzen da. Bazkide horiek ez dute pertsonalki erantzukizunik, sozietateak zorrak izanez gero.
- Izendapenean, luzapen honek agertu behar du: *erantzukizun mugatuko sozietatea*, *sozietate mugatua* edo *SM*.
- Kapital soziala bazkideen ekarpenen bidez osatzen da, eta 3.005,06 -koa edo gehiagokoa izan behar du. Eratzeko unean, kapital-ekarpen horrek guztiak izenpetuta eta ordainduta egon behar du.

- Ekonomikoki baloragarriak diren ondasunak eta ondare-eskubideak soilik jar daitezke ekarpen sozial gisa, inola ere ez lana edo zerbitzuak.

5. SOZIETATE ANONIMOA

- Merkataritza-sozietate honetan, kapital soziala (akziotan banatuta dago) bazkideen ekarpenen bidez osatzen da. Bazkideek ez dute pertsonalki erantzukizunik, sozietateak zorrak izanez gero.
- Izendapenean, luzapen hau izan behar du: *sozietate anonimoa* edo *SA* laburtzapena.
- Kapital sozialak 60.101,21 -koa edo gehiagokoa izan behar. Eratzeko unean, izenpetuta eta akzio bakoitzaren balio nominalaren %25ak ordainduta egon behar du.

6. LAN SOZIETATEA

- Sozietate anonimoak edo erantzukizun mugatuko sozietateak dira, baina kapital sozialaren zatirik handiena langileen jabetzakoa izaten da. Langile horiek mugagabeko lan-harremana dute sozietatearekin, eta pertsonalki eta zuzenean jasotzen dute egiten duten zerbitzuaren ordainsaria.
- Izendapenean, luzapen hau izan behar du: *lan-sozietate anonimoa* edo *erantzukizun mugatuko lan-sozietatea*, edo *LSA* edo *LSM* laburtzapenak.
- Kapital soziala akzio izendunetan edo partaidetza sozialetan banatuta egoten da.
- Sozietate anonimoetan, gutxienerako kapital soziala 60.101,21 -koa da, eta eratzeko unean %25a jarri behar da gutxienez.
- Lan-sozietate mugatuetan, berriz, gutxienerako kapital soziala 3.005,06 -koa da, eta eratzeko unean ordainduta egon behar da gutxienerako hori.
- Bazkideek beste pertsona batzuekiko duten erantzukizuna bakoitzak egindako ekarpenera mugatuta dago.

7. KOOPERATIBA SOZIETATEA

- Askatasunez atxikita eta nahi dutenean baja hartzeko aukerarekin elkartzen diren pertsonak eratzten dute sozietatea, enpresa-jarduerak egiteko eta, horren bidez, beren behar eta jomuga ekonomikoak asetzen eta lortzen saiatzeko. Sozietateak egitura eta funtzionamendu demokratikoa izaten du.
- Estatutuek zehazten dute zenbatekoa den kooperatiba eratzeko eta funtzionatzeko behar den gutxienerako kapital soziala, eta eratzeko unean ordainduta egon behar du.
- Kapital soziala bazkideek legezko dirutan egindako ekarpenen bidez osatzen da. Estatutuek hala badiote edo Biltzar Orokorrek horrela erabakitzen badu, ekonomikoki baloragarriak diren ondasunek eta eskubideek ere osa dezakete kapital soziala.
- Lehen mailako kooperatibetan, bazkide bakoitzaren ekarpenen guttizko zenbatekoa ezingo da izan kapital sozialaren herena baino handiagoa, bazkide horiek sozietate kooperatiboak, irabazi-asmorik gabeko entitateak edo nagusiki kooperatiben partaidetzaz osatutako sozietateak direnean salbu.
- Bazkideek zorren kasuetan duten erantzukizuna kapital sozialari ekarpena egiteko sinatutako kopurura mugatzen da, nahiz kopuru hori gutzia nahiz zati bat soilik izan jarrita une horretan.

3.4. FINANTZA PLANA

Finantza-planek enpresaren elementu ekonomiko guztiak hartzen dituzte aintzat: sarrerak, gastuak, kobrantzak, ordainketak, emaitzak...

Hauek dira kontuan hartu beharreko arlo nagusiak:

1. **Finantziarioa. Inbertsio-planaren** bidez aztertzen da, eta abian jartzeko, jarduera gauzatzeko eta epe motz eta erdira inbertsioak egiteko behar den guztia aurreikusten da.
2. **Emaitzen kontuak** elementu hauek aztertzen ditu: sarrerak, gastuak, emaitzak eta, emaitzen ondorioz, zenbaterainoko auto-finantziatorako gaitasuna duen.
3. **Diruzaintza-planaren** bidez diruzaintza aztertzen da; hau da, diru-sarrerak (kobrantzak) eta diru-irteerak (ordainketak) noiz egiten diren ikusten da; modu horretan, badakigu zenbat diru daukagun.
4. Aurreko guztia bilduz, **balantzea** egiten dugu.

3.4.1. HASIERAKO INBERTSIO ETA FINANTZIAZIO PLANA

Hasierako inbertsio- eta finantziario-planak helburu hau du: enpresa abiarazi aurretik zer inbertsio behar diren, eta inbertsio horiek finantzatzeko zer baliabide iraunkor eskuratzea espero den.

Hauek osatzen dituzte finantza-beharrak:

- Hastapen-gastuak: baimenak, jarduera-lizentziak, ekonomia-jardueren gaineko zergan alta hartzea eta, hala dagokionean, gizarte segurantzaren langile autonomoen eta merkataritza-sozietateen alta egitea, maileguak gauzatzeko gastuak, aholkularitza-gastuak...
- Inbertsioak: ibilgetua (lur sailak eta/edo lokalak, lokalak edo lur sailak egokitzea, eta lehenengoz erostea produktuak, makinak, lanabesak, tresneria, ordenagailuak eta abar).
- Jarduerari ekiteko behar den hasierako saldoa.
- Produktuak (hasierako izakinak) erosteko behar den hasierako dirua.

BALIABIDE EKONOMIKOAK:

- Akziodunen edo bazkideen beren ekarpenen bidezko baliabideak: kapital soziala.
- Besteren baliabideak: kreditu-entitateen bidez eskuratutako maileguak.
- Laguntzak eta diru-laguntza publikoak.

Egin beharreko inbertsioen guztizko zenbatekoaren parekoa izan behar du lortu beharreko finantziarioak. Horrexegatik, ahalik eta zehatzen zehaztu behar da inbertsioaren zenbatekoa, hortik behar dugun finantziarioa (dirua) zenbatekoa den ikusteko.

FINANTZIAZIOA lortzeko bide hauek erabil daitezke:

- **Epe luzerako** banku-mailegua. Eskatutako kapitala finantza-entitate batek ematen dio eskatzaileari. Zehaztutako epean eta ezarritako interesekin itzuli beharko dio gero eskatzaileak.
- **Epe motz edo erdirako maileguz edo kreditu-kontuaren bidez.** Banketxeak enpresaren esku-ra jartzen du saldo bat, eta beharra dagoen neurrian joan daiteke erabiltzen.
- **Leasing:** erosteko aukera ematen duen alokairua da. Ekipamenduak edo ondasun higiezinak finantzatzeko erabili ohi da.
- **Kapital sozialari egindako ekarpenak.** Bazkideen ekarpenak behar-beharrezkoak dira, gehiago edo gutxiago, nahiz eta beste finantziario-bide batzuk ere egon.
- **Auto-finantziarioa:** enpresak finantziarioarako gordetako irabaziak.
- **Diru-laguntza ofizialak:** administrazio publikoetatik eskuratzen direnak.

Kontabilitateari dagokionez, berriz, kontzeptu hauek izan behar dira kontuan:

- **Garraiorako elementuak:** era guztietako ibilgailuak.
- **Ekipamendu informatikoa.**
- **Eraketa-gastuak:** notariotzako gastuak, merkataritza-eroldan izena emateko gastuak eta abar.
- **Hastapen-gastuak:** enpresak bere jarduerari ekiteko behar adinakoak.
- **Finantza-ibilgetua:** abalak, bermeak, fidantzak eta abar.
- **Ibilgetu ez-materiala:** ekonomikoki baloragarriak diren eskubideez osatutako ondare-elementu ukiezinak.
- **Instalazio teknikoak:** ekoizpen-prozesuko erabilera espezializatuko unitate konplexua; esate baterako, eraikinak, makinak, materiala eta abar.
- **Makinak.**
- **Altzariak:** altzariak eta bulegoko materiala eta ekipamendua, informatikako ekipamendua eta gainerako multzo elektronikoak salbu.
- **Tresneria:** autonomoki edo makinekin batera erabil daitezkeen tresnen multzoa.

INBERTSIO PLAN BATEN ADIBIDEA

	2007. urtea
Garraiorako elementuak	5.000 €
Ekipamendu informatikoa	3.000 €
Eraketa-gastuak	860 €
Hastapen-gastuak	7.100 €
Finantza-ibilgetua	1.200 €
Ibilgetu ez-materiala	1.000 €
Instalazioak	
Makinak	
Altzariak	2.000 €
Bulegoak edo lokalak	
Lur sailak	
Tresneria	
GUZTIRA	20.160 €

3.4.2. EMAITZEN KONTUA

Aurreikusitako sarreren zenbatekoari gastu aldakorren eta finioen zenbatekoa kenduz ateratzen den emaitza erakusten digu. Epe erdi eta luzean lortu nahi ditugun emaitzak adierazten ditu.

- **SARRERAK:** salmenten bidezkoak eta enpresak izan ditzakeen bestelako sarrerak. Ez du zertan diruak sartu behar; beharbada bi hilabete barru ordainduko digute.
- **GASTUAK:** erosketak, eta enpresaren jarduerarako behar diren beste zenbait gastu. Ez du zertan diruak atera behar; beharbada, ez dugu ordainduko bi hilabete igaro arte.
- **KOSTU FINKOAK edo EGITURAZKOAK:** gure jardueraren bolumenarekin zerikusirik ez duten gastuak dira; esate baterako, pertsonal-gastuak, publizitate-gastuak, alokairu-gastuak...
- **KOSTU ALDAKORRAK edo JARDUERARENAK:** zuzenean gure jarduerarekin lotutako gastuak dira, eta haren arabera aldatzen dira; esate baterako, ekoizpenerako eskulangileak, azpikontrata, garraio-gastuak eta salgaienak, eta abar.

- **MARJINA GORDINA:** salmenten zenbatekoaren (ekoizpena, sarrerak) eta kostu aldakorren arteko aldea.
- **ERRENTAGARRITASUN ATALASEA:** salmenta kopuru jakin bat da, sarrerak kostu guztien berdina —hau da, kostu finkoen eta ekoizpeneko kostu aldakorren baturaren parekoak— izatea eragiten duena. Bolumen horretatik gora, enpresak irabaziak izango ditu.

Garrantzitsua da izango ditugun sarreren eta kostu aldakorren ahalik eta aurreikuspen zehatzena egitea. Horretarako, kalkulu hauek egin behar dira:

- merkaturatuko ditugun produktuen eta zerbitzuen zerrenda egin
- produktu edo zerbitzu bakoitzaren prezioa kalkulatu
- produktu edo zerbitzu bakoitzean esku hartzen duten gastu aldakorrak zenbatekoak izango diren kalkulatu
- urte bakoitzean produktu/zerbitzu bakoitzeko zenbat unitate saltzea espero dugun aurreikusi
- urteko sarrerak kalkulatu
- marjina kalkulatu, sarrerei kostu aldakorrak kenduz

3.4.3. DIRUZAINITZA PLANA

Plan honen bidez, enpresak duen likidezia aztertzen dugu; hau da, beste pertsona batzuei egin beharreko ordainketei aurre egiteko gaitasuna. Modu horretan, izan ditzakegun finantziazio-beharrei aurre har diezaikegu.

Diruzaintza-plana oso erabilgarria da kutxako sarrerak eta irteerak zehazten laguntzeko eta likidezia planifikatzeko. Garrantzitsua da sarrera eta kobrantza bereiztea, bai eta gastua eta ordainketa bereiztea ere.

- **KOBRANTZAK:** enpresako kontuetan egiten diren diru-sarrerak (saldu genuen produktua edo zerbitzua kobratzen da).
- **ORDAINKETAK:** enpresako kontuetako diru-irteerak (erosi duguna ordaintzen dugu).

Gerta daiteke sarrera kontabilizatzea, eta gero sekula ez kobratzea; esate baterako, bezeroa berankorra denean eta ordaintzen ez duenean. Eta alderantziz, sarrera ez den diru bat kobra dezakegu; adibidez, bezero batek faktura bat BEZa barne ordaintzen digunean, likidezia jaso arren, ezin dugu gure dirutzat jo zergari dagokion zatia (Ogasunarentzat baita).

Arrazoiketa bera egin genezake gastuaren eta ordainketaren artean ere. Gastua betebeharra sortzen denean (hornitzaile batekin, Ogasunarekin...) egiten da; ordainketa, berriz, kutxako irteera gertatzen denean gauzatzen da.



3.4.4. BALANTZEA

Balantzea enpresak une jakin batean duen egoera ekonomiko-finantzarioaren isla da; izan ere, zer duen (bere eskubideak edo aktiboa) eta zer zor duen (bere betebeharrak edo pasiboa) zehazten du. Data jakin batean enpresak zer ondare-egoera duen adierazten du. Bi atal ditu:

- **AKTIBOA:** enpresaren ondasunek eta eskubideek osatzen dute; ondasunak eta inbertsioak duten likidezia-mailaren arabera hurrenkeran adierazten ditu (hau da, eskubide horiek diru bihurtzeko erraztasun-mailaren arabera).
- **PASIBOA:** enpresaren betebeharrak adierazten ditu; hau da, betebeharrak aktiboan islatu-tako inbertsioen finantziario-iturriak. Itzulketa egiteko dugun exijentzia-mailaren —hau da, itzul-tzeko dugun epearen— arabera hurrenkeran adierazten dira.

5. ARIKETA: **TABU** (DBH-KO 2. ZIKLOA ETA BATXILERGOA)

Ikastaldea lau taldetan banatu, txandaka jolas dezaten. Irakasleak 9 txartel izango ditu, eta txartel bakoitzean letra larriz ageriko da asmatu beharreko hitza, eta letra xehez, berriz, hura deskribatzerakoan erabili ezinako 3 hitz. Irakasleak taldekide bati eman behar dio txartela txanda bakoitzean. Txartela jasotzen duenak irakurri egin behar du, eta letra larriz idatzitako hitza taldekideei zein den azaltzen saiatu behar du, beste hitzak aipatu gabe.

Azaldu:

SARRERA

Hauek aipatu gabe:

- kobratu
- soldata
- dirua

Azaldu:

GASTU FINKOA

Hauek aipatu gabe:

- hilabetea
- dirua
- ordaindu

Azaldu:

GASTU ALDAKORRA

Hauek aipatu gabe:

- aldatu
- hilabetea
- gehiago/gutxiago

Azaldu:

AURREKONTUA

Hauek aipatu gabe:

- gastuak
- dokumentua (agiria)
- prezioa

Azaldu:

MAILEGUA

Hauek aipatu gabe:

- eskatu
- banketxea (bankua)
- finantzatu

Azaldu:

FAKTURA

Hauek aipatu gabe:

- papera
- ordainketa
- prezioa

Azaldu:

DIRUA

Hauek aipatu gabe:

- billetea
- txanpona
- ordaindu

Azaldu:

DIRUZAINZA

Hauek aipatu gabe:

- likidezia
- kutxa
- kobrantzak/ordainketak

Azaldu:

ZENBAKI GORRIAK

Hauek aipatu gabe:

- kontua
- dirua
- banketxea (bankua)

3.5. ENPRESA PROIEKTUA IDATZIZ AURKEZTU

Proiektu bat helburu hauekin aurkez daiteke: ezagutarazteko, kanpoko baliabideak lortzeko, produktua edo zerbitzua erabiltzeko edo kontsumitzeko beharra sortzeko eta abar.

Proiektua idazterakoan, kontu handiz aritu behar da: hitz egokiak erabili behar dira, testua paragrafo labur eta zehatzetan antolatu, eta grafikoak eta koadroak erabili, ideiak argitzeko.

AURKIBIDEA

1. SARRERA:

- Ideia nola, noiz eta zergatik sortu zen.
- Taldearen *curriculum*a edo aurkezpena

2. BIDERAGARRITASUN PLANA:

- Merkatuaren azterketa: inkesta
- Emaizak eta ondorioak

3. ETORKIZUNEKO ENPRESA

- Enpresaren izena eta logotipoa
- Kokapena
- Produktua edo zerbitzua definitu, eta lehiakideekiko aldea
- Prezioen eta sustapenaren politika
- Publizitate-plana
- Forma juridikoa
- Organigrama
- Inbertsio- eta finantziario-plana

ERANSKINAK

BIBLIOGRAFIA

ESKER ONA

6. ARIKETA: GURE ASMAKIZUNA / NEGOZIO PLANA

DBH-KO 1. ETA 2. ZIKLOAK ETA BATXILERGOA:

- Orain arte ikusitako guztia eta egin ditugun ariketak oinarri hartuta, zuen asmakizunen tailerra edo negozio-plana egiteko behar duzun informazio guztia laburbildu.
- Ideia, nori dagoen zuzenduta, zer aurrekontu duen, norik gauzatuko duzuen, nola antolatuko zareten...



BATXILERGORAKO ERANSKINA

LAN MERKATUAREN EGITURA

1. GAUR EGUNGO LAN MERKATUA
2. CURRICULUM VITAE-A

LAN MERKATUAREN EGITURA

1. Gaur egungo lan-merkatua

Lan-merkatua toki jakin bateko (herrialde, eskualde, probintzia edo udalerrri bateko) enplegu-eskaintzen eta -eskarien multzoa da.

Denboraldi batetik hona, ahultasun- eta neke-zantzuak ari da erakusten gaur egungo gure ekonomia-eredua. Ekonomia gehiegi oinarritu izan da eraikuntzan, eta luzaz, gainera. Horrez gain, inbertsio txikia egin da ikerketan eta garapenean (I + G), eta atzerriko kapitalen inbertsioa ere txikia izan da.

Oraintsu arte, hamaika ikaslek izan ohi zuten enpresa handietan eta administrazio publikoan lan egiteko asmoa. Baina nola batzuek hala besteak ez dute, dagoeneko, enpleguak eskaintzeko lehengo ahalik, eta enpresa txikiek eta ertainek (ETE) ordezkatu dituzte, neurri handi batean. Gaur egun, enpresen %99ak 50 langile baino gutxiago ditu. Beraz, bizi gutzirako lanpostu egonkor eta mugiezinaren eskemak –gure kulturaren funtsezko oinarria izan denak– ez du balio, dagoeneko.

Alderantziz, lan-merkatura moldatzeko malgutasun gehiago eta egokitzeko gaitasun handiagoa behar ditugu. Beraz, murriztu egin ehar da lan merkatuaren errealitatearen eta ikasleen asmo eta itxaropenen arteko tartea.

Auto-enpleguaren aukera segurtasun gutxiagokotzat edo arrisku handiagokotzat jotzen dugu, oraindik ere. Horren ondorioz, soilik beste aukerek huts egiten dutenean aintzat hartzeko uzten dugu aukera hori.

Lan-merkatuak oinarritzko egitura hau du:

Biztanleria AKTIBOA:

- Legez lan egiteko adina duten pertsona guztien multzoa. Espainiako estatuan, 16 urtetik 65era arteko pertsonak.
- Lana duten eta langabezian diren pertsonen batura da.
 - **Lana dutenak:** ordaindutako jardueraren bat (bai inoren kontura bai norberaren kontura) egiten duten biztanle aktiboen multzoa.
 - **Langabetuak:** lan egin nahi duten arren lanik aurkitzen ez duten biztanle aktiboen multzoa.

BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA: ikasleak, erretiroa hartutako pertsonak, lanik eskatzen ez duten pertsonak eta abar.

Zertan egin nahi den lan jakiteak lagundu egingo digu gehien zer komeni zaigun zehazten: enpresa edo erakunde baten mende lan egotea, soldata baten truke egitea lan, ala norberaren enpresa antolatu eta eratzea. Lan mota bakoitzak alde on eta muga batzuk ditu; ikus ditzagun:

→ **Koadro hau betetzeko eskatuko diegu ikasleei:**

INOREN KONTURAKO LANA		AUTO-ENPLEGUA	
ALDE ONAK	ALDE TXARRAK	ALDE ONAK	ALDE TXARRAK

Soldatapeko lana (inoren konturakoa)

Lan mota honetan, enplegua ematen digun pertsonaren edo erakundearen mende gaude: soldata bat ematen digu zeregin jakin batzuk betetzearen truke. Lan mota honek alde on eta txar hauek ditu:

ALDE ONAK	ALDE TXARRAK
Hilero soldata finko bat jasotzen duzunez, badakizu zer diru kopuru izango duzun hilero.	Ezin duzu zure denbora nahi bezala antolatu, malgutasun gutxiko ordutegira egokitu behar baituzu (ezin da ordutegia aldatu).
Plantillako langilea bazara, onura sozialak izateko eskubidea duzu (aparteko ordainsariak, osasun-asegurua, amatasun-baja, gaixotasun-baja, sorospenak, erretiroa...).	Askotan, ordaintzen dizuten kopurua ez da bat etortzen dituzun betebeharrekin eta igarotzen duzun denborarekin.
Ordutegi finkoa duzunez, daukazu astialdia antolatu egin dezakezu.	Beste pertsona baten edo batzuen zuzendaritzapean lan egiten ikasi behar duzu.
Babesten zaituen kontratu bat duzu, langilea zaren aldetik dituzun eskubideak eta betebeharrak zehazten baititu.	

Soldatarik gabeko langilea (norberaren konturakoa)

Modu burujabea egiten da lana, banaka nahiz taldean, eta lan horren bidez sortzen dira norberaren diru-sarrerak.

ALDE ONAK	ALDE TXARRAK
Ez dago inorekiko mendekotasunik, norbera da bere buruaren nagusi. Norberak erabakitzen du lana nola egin behar den.	Hasteko kapital bat izan behar duzu, eta horrek arriskua du.
Ordutegia bezeroek baldintzatzen dute, beren beharren arabera.	Ez da soldata finkorik izaten: diru-sarreraren zenbatekoa aldatu egiten da.
Enpresa hazi egiten denez, baliteke beste pertsona batzuek ere bertan lan egitea.	Ez dago ordutegi finkorik, eta enpresaren eta bezeroen beharren arabera egiten da lan.
Autonomia pertsonal handiagoa.	Negozioa hazten bada, ekonomikoki enpresa-erikiko mendekotasuna duten beste pertsona batzuen gaineko erantzukizuna izango duzu.

Garrantzitsua da lan-helburu jakin bat izatea; izan ere, zer nahi duzun jakinda soilik planifikatu ahal izango duzu zure bidea ahalik eta modurik eraginkorrenean eta, horrela, helburu hori lortzeko aukerak handitu. Kontuan izan: hemendik aurrera egiten duzunak baldintzatuko ditu etorkizuneko zure lan-aukerak.

Enpresek hainbat modutan hautatzen dituzte beren langileak: elkarrizketa bidez, froga edo azterketa baten bidez... *Curriculum vitae*-a eskatzea ere ohikoa izaten da. Curriculum vitae-a datu pertsonalen orria da, eta ikasketen eta lan-eskarmentuaren berri zehatza ematen du.

Lanpostu edo enplegu bakoitzerako, hura bete dezakeen pertsonaren profila egiten da, eta hautagaiak bete beharreko gutxieneko baldintzak zehazten dira. Betekizun horiek hainbat erataria iragaritzen dira: enpresaren barruko komunikazio-bideen bitartez, prentsa edo irrati bidez, dauden lan-poltsako pertsonen jakinaraziz...

Eskatzaileok zeun burua lanpostu edo enplegu baterako aurkezten duzuenean, alderdi hauek hartuko dituzte aintzat:

- zer ikasketa egin dituzuen,
- lanpostuarekin lotutako zer ezaupide dituzuen,
- zer prestakuntza osagarri duzuen,
- lan-esperientzia (batez ere, antzeko lanetan),
- egin duzuen frogatzen duten agiri guztiak dituzuen,
- komunikaziorako dituzuen trebetasunak.

Lan-merkatua aldatu egiten da, baita eskakizunak ere. Horregatik, prest egon behar duzue zuen ezaupideak areagotzeko eta zuen lanpostuaren eskakizun berrietara egokitzeke edo eguneratzeko.

Garrantzitsua da norberaren konturako lana beste lan-aukera bat eta aukera pertsonal bat dela aintzat hartzea.

Lanbide-arrakasta izan nahi baduzue, zuen aukerez ahalik eta gehien baliatu behar duzue. Bai norberaren konturako lanean bai inoren konturakoan, gaur egun dauden lanbide-profil berriak betetzeko behar diren gaitasunak honela eskuratu ahal izango dituzue: trebetasunak garatuz, ezaupideak eskuratzuz eta jarrera egokia izanez.

2. CURRICULUM VITAE-A

LAN BIZITZAREN HISTORIA da, eta norbaitek zer lanbide-ibilbide egin duen, zer ikasketa egin dituen, eta zer interes eta jarrera pertsonal dituen adierazten du, labur-labur. Azken alderdi horiek sakonduko ditugu orain, hain zuzen ere; izan ere, hau da garrantzitsuena fase honetan: nork bere interesak eta jarrerak zein diren jakitea, eta interes eta jarrera horiek aztertzea.

BA AL ZENEKIEN....

curriculumak gure **irudi bat** ematen duela?

enpresak gutaz duen lehen informazioa eta informazio bakarra dela?

curriculum vitae-aren **edukiak** eskuratu nahi den lanpostura egokituta egon behar duela?

- Kalitate oneko papera erabili (DIN-A4 neurrikoa).
- Ordenagailuz idatzi.
- Marjina zabalak utzi, eta atalak ondo bereizi.
- Idazkerak zehatza, laburra eta argia izan behar du, eta ez da bi orrialdekoa baino luzeagoa izan behar.
- Jatorrizkoa eman, eta kopia bat jaso.
- Curriculumarekin batera aurkezpen-gutun bat eman.
- Beharrezkoa bada, argazki bat erantsi (oraintsukoa eta kalitate onekoa).
- Lehenengo enpleguaren bila ari bazara, areagotu itzazu eskuratutako edukiak, ikasgaiak, gaiak eta bestelako lanbide-ezaupideak.
- Nabarmendu zurekin harremanetan jartzeko telefono-zenbakia.
- Curriculumak zure buruarengan eta lanerako duzun balioarengan konfiantza eta segurtasuna duzula erakutsi behar du; baikor agertu behar duzu.

CURRICULUMA NOLA IDATZI

DATU PERTSONALAK

Izen-abizenak
Jaiotza-tokia eta -eguna
Helbidea
NAN
Telefono-zenbakia
Posta elektronikoko helbidea

IKASKETAK

Data
Titulua eta espezialitatea
Ikastetxea/tokia

PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA (ikastaroak, laneratze-lantegiak,...)

Data
Ikastaroaren izenburua
Iraupena
Ikastetxea

BESTE EZAUPIDE BATZUK

Informatika, hizkuntzak... Tituluak eta mailak adierazi.

INTERESEKO BESTE DATU BATZUK

Kongresuetan, beketan eta mintegietan parte hartu izana, egoera pertsonala, gidabaimena duzun, beste eskualde edo probintzietara joateko modua duzun...

***** LAN ESKARMENTUA**

Datak
Jarduera nagusia/Enpresa/Lanpostua

BESTELAKO LAN ESPERIENTZIA

Egindako ikasketekin zuzenean lotuta ez dauden lanak

*** *Une honetan, alderdi horiek garatu gabe dauzkazue; horregatik, prestakuntza eta intereseko beste datuak landu beharko zenituzkete, batez ere.*

7. ARIKETA: AUKERAKETA

BATXILERGOA

- Rol-joko bat proposatu, ikasleek langileak hautatzeko prozesu bat antzez dezaten.
- Lehenik, bete beharreko lanpostua definitu behar dute, eta aukeraketan aintzat hartu beharreko alderdi nagusiak zehaztu.
- Irizpideak zehaztuko dituzte, elkarrizketatuek eskatutakoaren arabera egin ditzaten curriculumak.
- Talde batek elkarrizketatzailearena egingo du.
- Beste talde batek, elkarrizketatuarena.
- Hirugarren taldeak behatzailearen rola beteko du: ikusitako guztiari buruzko oharrak hartuko dituzte, eta gero, lan-dinamika nola joan den azalduko diote ikastalde osoari.

ERREFERENTZIAK

- BEST proiektuko aditu taldeak enpresari-espirtua izateko heziketa eta prestakuntzari buruz egindako azken txostena, Europako Batzordea, 2002.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari zuzendutako Komunikazioa. COM (2006) 33, azken bertsioa.
- Europako Batzordeak Kontseiluari, Europako Parlamentuari, Ekonomia eta Gizarte Lantaldeari eta Eskualdeetako Lantaldeari zuzendutako Komunikazioa. Ekintza Plana: enpresari-espirtuaren aldeko Europako programa. COM (2004) 70, azken bertsioa.
- Liburu Berdea: Enpresen erantzukizun sozialerako Europako marko egokia sustatzen, Europako Batzordea (2001).
- Liburu Berdea: Enpresari-espirtua Europan. COM (2003) 27, azken bertsioan oinarritutako dokumentua.
- Hezkuntza Kontseiluak Europako Kontseiluarentzat hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen etorkizuneko helburu zehatzei buruz egindako txostena.
- Merkataritza-ganberak eta Hezkuntza eta Zientzi Ministerioa (2006). Espiritu ekintzailearen sustapena.
- EHAA, 2007ko azaroaren 13a, asteartea. 175/2007 dekretua. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Xedapen Orokorrak.
- José Ángel Paniego (2002).



WEB ORRI INTERESGARRIAK

- www.valnaloneduca.com
- www.eje.valnaloneduca.com
- <http://www.fundacionjaes.org/>
- http://www.juntadeandalucia.es/averroes/~emprender/index.php?option=com_content&task=view&id=19&Itemid=26
- www.garapen.net/castellano/index.htm
- www.inem.es
- www.bilbao.net/lanekintza
- www.bizkaia.net
- www.euskadi.net
- http://europa.eu.int/comm/enterprise/entrepreneurship/support_measures/index.htm
- <http://mec.es>
- www.emprendedores.es
- <http://www.map.es> <http://www.administracion.es>
- <http://www.centro-emprende.com>
- <http://www.emprendedor.net>